


Aiurri

BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKORTIA

2009ko urriaren 2a • 330. zenbakia • 1,20 € • Harpidedunei banatua



Andoain

Batista Arruti, mendi eta bertsozalea

Hitzak hotz: Joxin Azkue eta Mikel Manzisidor **I Andoain:** Batista Arruti | Zuena emakume taldea

I Amasa-Villabona: Remi Ayestarani omenaldia | Lur azpiko garajeak **I Zizurkil:** Xiba herri kirol taldea

I Asteasu: Azoka berezia **I Magazina:** Euskal Herriko Bertso Txapelketa | Herritarren txokoa: Joxe Migel Maiz

Zizurkil

Xiba herri kirol taldea

Eskualdeko gazte ugari arraunean gogor saiatzen ari da azken urteotan

Lehorreko arraunlariak, bikain



Paperezko
liburua galdu
egingo al da?

Posible ikusten
al duzu
irakurtzea
gustatzen ez
zaion bati
horretarako
zaletasuna
piztea?

Edizio
elektronikoak
asebeteko al
du irakurlea?

Euskal
literaturari
onura edo kalte
gehiago
ekarriko dio?

111
EHUN+
hamailaka
—akademia—

Literaturaren bideak etorkizunean

MAHAI-INGURUAK

2009KO URRIA

BAIONA

BILBO

DONOSTIA

GASTEIZ

IRUÑEA

Euskal literaturazaleen akademia

DONOSTIA: URRIAK 1

Parte hartzaileak:

- Xabier Mendiguren
- Gorka Arrese
- Inazio Mujika

Moderatzailea:

Juan Luis Zabala

Ordua: 19:00

Tokia: Elkar Aretoa

(Fermin Calbeton, 21)

BILBO: URRIAK 8

Parte hartzaileak:

- Goizalde Landabaso
- Gotzon Barandiaran
- Irati Jimenez

Moderatzailea:

Patxi Gaztelumendi

Ordua: 19:00

Tokia: Elkar Aretoa

(Licenciado Poza, 14)

GASTEIZ: URRIAK 15

Parte hartzaileak:

- Patxi Zubizarreta
- Iban Zaldúa
- Katixa Agirre

Moderatzailea:

Ibon Egoña

Ordua: 19:00

Tokia: Elkar Aretoa

(San Prudencio, 7)

IRUÑEA: URRIAK 22

Parte hartzaileak:

- Juanjo Olasagarre
- Aingeru Epaltza
- Patziku Perurena

Moderatzailea:

Patxi Gaztelumendi

Ordua: 19:00

Tokia: Elkar Aretoa

(Comedias, 14)

BAIONA: URRIAK 29

Parte hartzaileak:

- Itxaro Borda
- Itziar Madina
- Eneko Bidegain

Moderatzailea:

Juan Luis Zabala

Ordua: 19:00

Tokia: Elkar Aretoa

(Arsenal Plaza)

Antolatzaile:

111
EHUN+
hamailaka
—akademia—





Argitaratzailea:
Manuel Larremendi Kultur Bazkuna

Ekoizlea: **ERROITZ**
KULTUR BAZKUNA

Egoitza Orokorra:
Dr. Huizi kalea 15, 1-esk.
20140, Andoain
☎ 943 300 732 • Faxa: 943 300 731
E-posta: beterrri@aiurri.com

Zorion agurrak:
diseinua@aiurri.com
Oharra: zorion agurrak garaiz bidali behar dira urtebetetze eguna baino hamar egun lehenago.

Zizurkilgo egoitza:
Bulantegi bidea 23, Karidade-enea etxea.
20150, Zizurkil
☎ 943 696 450
E-posta: urkizularramendi@topagunea.com

Babesleak:
Aduna, Andoain, Asteasu, Amasa-Villabona,
Larraul eta Zizurkilgo Udalak

Arduraduna:
Ainhua Arozena

Erredakzioa:
Ainhua Arozena, Ainhua Gil eta Xabier Lasa

Erredakzio laguntzaileak:
Joni Ubeda, Ainhua Aiertza, Bakarbo Igauran,
Aitor Usandizaga, Amaia Agirre, Aritz Garin,
Xabier Huizi, Ainara Ansa, Antselmo Larrarte,
Marijuli Azkue, Joxin Azkue, Garazi Kamio,
Txomin Garmendia, Karmen Rodriguez-Ranz,
Igotz Alkorta, Jon Unanue, Mikel Manzizidor eta
Leire Zubeldia

Maketatzailea:
Maddi Trutxuelo

Diseinua:
Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda

Publizitate arduraduna:
Fernanda Irazu

Administratzailea:
Garbiñe Ugartemendia

Banaketa arduraduna:
Garbiñe Ugartemendia

Banatzzaileak:
AMASA-VILLABONA, ELBARRENA: Arantza
ANDOAIN: Jon Beloki, Maialen Letamendi,
Vicky Rekena eta Xabier Lasa.
ADUNA, ZIZURKIL GOIA: Ainhua Gil.
ASTEASU, LARRAUL: Txaro Otaegi.

Munduko sukaldaritza:
Esther Urrutia Etxeberria

Psikologia:
Leire Caminos

Aiurri Txikitxo:
Garbiñe Ubeda

Gurutzegrama:
Eloy Artolazabal

Inprimategia:
Sortu Grafikak S. Koop. (Zizurkil)

Lege Gordailua: SS-202/94

ISSN: 1134-0614

Tirada: 2.500 ale

Oharra: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik

Laguntzaileak:



Eusko Jaurilaritza
Hizkuntza Politikarako Sailbu-
ruordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

2009ko urriaren 2a

NONZER

330. zenbakia

Lehorreko arraunlariak

Luze eta zabal

10

Batista Arruti

Andoain

8-9

Remi Ayestarani omenaldia

Amasa-Villabona

16-17



JOXE MIGEL MAIZ KORRIKALARIA

Zazpi urtez internacional mailako korrikalaria izan zen azken urte luzeetan Astesun bizi den aiarra. Beste lasterketen artean, Donostia-Lasarte-ko kross internazionala gordetzen du gogoan. 1968 urtean lehenengo egin zuen.

HEMEROTEKA

Amaia Aizpurua zizurkildarra,
bertsotan ederki 4

HAMABOSTEAN BEHIN

Zorion-agurrak, demografia 5

HITZAK HOTS

Joxin Azkue eta
Mikel Manzizidor 6-7

LUZE ETA ZABAL

Lehorreko arraunlariak,
bikain 8-11

ANDOAIN

Batista Arruti 12-13

Zuentzat emakume elkarteak ... 14

AMASA-VILLABONA

Garaje plazak salgai 15

Remi Ayestarani
omenaldia 16-17

ZIZURKIL

Zizurkildarren garaipena
Xiba txapelketan 18-19

ASTEASU

Giro bikaina Asteasuko
azokan 20

LARRAUL

Ur hoditeria konpontzeko lanak . 21

MAGAZINA

Herritarren txokoa
Maiz korrikalari abila 22

Denborapasak 23

Bertsolari Txapelketa
Nagusia 24-25



BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

Agenda 26

Beterri-
-Aiztondo

EGUNEZ EGUN

Irailak 17, osteguna

Diska berria aurkeztu zuen Iker Goeneagak "...arteraino" izen-buruean. / ZIZURKIL

Irailak 19, larunbata

Behar-Zana elkartearen egoitza berria zabaldu zuten. / AMASA-VILLABONA

Bigarren eskuko produktuen azoka egin zen Mugikortasun astearen barnean. / AMASA-VILLABONA

Irailak 20, igandea

Jende asko hurbildu zen auto-sla-loma ikustera. / ZIZURKIL

Bizikleta martxa egin zen Mugikortasun astea ospatzeko. / ASTEASU

Transportes Lakunza taldeak irabazi zuen 24 orduko futbol txapelketa. / AMASA-VILLABONA

Irailak 21, astelehena

Auto batek su hartu zuen Kale Berrian. / AMASA-VILLABONA

Irailak 22, asteartea

Autorik gabeko eguna ospatu zen. / BETERRI-AIZTONDO

Irailak 27, igandea

Jendetza handia ibili zen Azoka berezian. / ASTEASU

Xanti Telleriak irabazi zuen zaldi lasterketa. / ZIZURKIL

Irailak 29, asteartea

Jende asko hurbildu zen San Migel ermitan ospatutako meza entzuteran. / ZIZURKIL

Amaia Aizpurua zizurkildarra, bertsotan ederki

Irailaren 6an, igandearekin jokatu zen Lazkao Txiki bertso paper lehiaketa Ordiziako Barrena Kultur Etxean. Amaia Aizpurua gazte zizurkildarrak, hirugarren postua lortu zuen hamalau urtetik beherako bertsolarien mailan. Aurrez zehaztutako gaiari jarraituz lau bertso idatzi zituen Amaiak hamarreko txikian. Hauxe zen jorratu beharreko gaia: aurtien gurasoek esan didate ezin dugula oporretara joan.

Hona hemen Amaiak Aizpuruak idatzitako bertso sorta:

Lasai, aita

Doinua: Hamalau heriotzena

1.-Aita gaixorik daukat
oso aspalditik
kanpora ezin dugu
joan horregatik
giltzurdin bat falta du
txiki-txikitatik
baina dena okertu
zen gero kolpetik
kotxean istripua
izan zuenetik.

2.-Umetatik zekarren
giltzurdin bakarra
ta marka bakar hori
gaixotu beharra
ikusmena urri du
nahiz ta ez den zaharra
nahiz ta begietara
etorri nigarra
aurrera egiteko
badauka indarra.

3.-Astean hiru aldiz
dialisisera
gorputzeko odola
ondo garbitzera
makina handi bati
lau orduz lotzera
gero taxia hartu
ta berriz etxera
nahiz ta oporrak galdu
sendatuko zera.

4.-Oporretara doa
lagun talde dena
ta nik ezin dut joan
ematen dit pena
baina halare ez da
horixe txarrena
aukera izango da
joateko hurrena
zu sendatzea baita
opari onena.

Xanti Telleria, Zizurkilgo zaldi lasterketako garaile

Irailaren 27an ospatu zen Zizurkilgo zaldi lasterketa. Arratsaldeko 18:00etarako jendetza handia bildu zen zirkuituaren inguruan, lasterketa ikusteko asmotan. Hamabi zaldi lehiatu ziren eta hiru kanporaketa jokatu, sei zaldi sailkatu ziren lasterketa erabakiorrerako. Finaleko lehen itzulietan Axier Muxika zizurkildarraren eta Xanti Telleriaren arteko lehia ikusgarria bizitu zen. Bigarren itzulia amaituta, ordea, zaldun zizurkildarra erori egin zen. Kolpe handia hartu zuen eta lehen momentuetan urduritasun uneak bizitu ziren bertaratutakoen artean. Azkenik, Axier Muxika anbulantzia eramatea erabaki zuten, baina zauri larririk gabe. Xanti Telleria zaldunak lortu zuen garaipena, Txomin Zubia eta Egoitz Iraolaren aurretik.



Axier Muxika eta Xanti Telleriaren arteko lehia, ikusgarria izan zen.



Iraola

Aholkularitza - Artezkaritza

ENPRESEN AHOALKULARITZA

*Fiskala, dirukontuena, juridikoa,
laborala, aseguru orokorrak*

Kale Nagusia, 37

Tel.: 943 692 763 • Faxa: 943 692 774

AMASA-VILLABONA

ZORION-AGURRAK

OSO ERRAZA DA! IGORRI ARGAZKIA ETA IDATZIA
ANDOAINGO EDOTA ZIZURKILGO EGOITZARA



ZORIONAK

Naroa Azurmendi Amonarriek urte pottolo bat beteko du urriaren 8an. Zorionak politta, eta jarraitu orain arte bezain alai!

ZIZURKIL



ZORIONAK

Oihana Perez Valdemorosek 3 urte bete zituen urriaren 2an. Zorionak, etxeko sorginari eta muxu handi bat etxekoan partetik.

ANDOAIN



ZORIONAK

Irailaren 16an Rafak urteak bete zituen eta irailaren 8an Gentzanek 24 urte. Ondo ospatuko zenutelakoan, muxu handi bat maite zaituztenen partetik.

ANDOAIN



ZORIONAK

Amets Barandiaran Kortajarenak urriaren 3an lehen urtetxoa beteko du. Muxu handiak familiaren partetik.

ZIZURKIL



ZORIONAK

Joan zen irailaren 22an Malen Royo Irisarri jaio zen Iruñean. Lagun piloa izango du Villabonan ere. Zorionak Arantxa eta Nestor. Muxu handiak.

AMASA-VILLABONA



ZORIONAK

Maxe Sarasola Oartzabal eta Joxe Ramon Iturtzaeta Goenagak urriaren 10ean 50 urte egingo dituzte ezkondu zirela. Zorionak familia guztiaren partez.

ANDOAIN



ZORIONAK

Zorionak!!!!!! Adunako eskolako ikasleei eta irakasleei, ondo pasa zuen urtebetetzeko egunetan!

ADUNA



ZORIONAK

Imanol Usandizagak urriaren 10ean 11 urte beteko ditu. Zorionak eta ondo pasa. Muxuak, etxekoak.

ANDOAIN

Demografia

JAIOTZAK

- Aicha Hadidi Aranburu
Irailaren 16an, Zizurkilen
- Sua Urbizu Markinez
Irailaren 16an, Zizurkilen
- June Larrañaga Zendoia
Irailaren 10ean, Andoain
- Irati Larrañaga Zendoia
Irailaren 10ean, Andoain
- Iruñe Redondo Moreno
Irailaren 11n, Andoain
- Ariane Navaridas Caballero
Irailaren 12an, Andoain
- Oier Telletxea Oyarzabal
Irailaren 14an, Andoain
- Maren Carrasco Apalategi
Irailaren 18an, Andoain
- Naroa Aikorta Moreno
Irailaren 19an, Andoain
- Mara Arnaiz Martin
Irailaren 20an, Andoain
- Samira Ait Chaou Galarraga
Irailaren 9an, Amasa-Villabonan
- Joane Martinez Olasagasti
Irailaren 15ean, Amasa-Villabonan
- Ianitz Sasieta Uzkudun
Irailaren 18an, Amasa-Villabonan
- Javier Piñeiro Sasiain
Irailaren 18an, Amasa-Villabonan

EZKONTZAK

- Ignazio Eizmendi eta Maite Palacios
Irailaren 19an, Andoain
- Ruben Medina eta Angela Alamo
Irailaren 19an, Andoain
- Manuel Doval eta Maria Pilar Taboada
Irailaren 26an, Andoain
- Joseba Iñaki Arretxe eta Maider Lizarribar
Irailaren 19an, Amasa-Villabonan

HERIOTZAK

- Jose Artola Artola
Irailaren 16an, Andoain
- Maria del Coro Gema Gurpegi Esnaola
Irailaren 21ean, Andoain
- Ignazio Maiza Dorronsoro
Irailaren 22an, Andoain
- Bonifacio Gonzalo Portillo
Irailaren 26an, Andoain

STOP
LIBURU DENDA

Agustin Leitza, 27
943 591 603
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)



Eusko Jaurlaritzza

Kultura Sailak diruz
lagundutako hedabidea

Bada euskaldunen Argentina ere



Joxin Azkue

Zizurkil



**Ez dugu
merezi bezala
zaintzen gure
diaspora"**

Nahiko urrutira joatea tokatu zaigu amaitu berri den uda honetan, Argentinara hain zuzen ere. Oporrak aprobetxatu nahi izan ditugu han dugun familiari bixita egiteko eta guretzat ezezagunak ziren parajetan han- hemenka ibiltzeko. Hemengo uda han negu izaki, izotzarekin topo egin dugu. Eguraldi hotza, futbola beroa eta politikaren etsipena, politikariekikoa zehazki. Ustelkeriak mespretxua dakar Argentinan ere.

Lurraldearen zabaltasuna egin zitzaigun deigarrien iritsi bezain laster. Kilometroak eta kilometroak, joan eta joan, begi aurretako zeruertza laua betiro, zapal eta leun, etengabea. Eta ganadua. Eta ganadua. Beti haziendaren ttanttak este- pa amaigabea.

Paisaia, ordea, bat-batean aldatu zen Patagonia Andino- ra iritsi ginenean. Hango negu gorrian, laua zena malkar bihurtu zen. Belazeak, elur eta ipa-

rraldeko epeltasuna, hotz eta lantzurda. Dena handi, dena zabal, dena miresgarri...

Naturaz gozatu badugu ere, Argentinako euskaldunekin egoteko eta jarduteko aukerarik ez dugu galdu. Pello Mari Otaño bertsolari zizurkildar- rrek utzitako arrastoen bila genbiltzala, hainbat euskal etxe bisitatze okasioa izan dugu eta euskal-argentinarrekin solasaldi lasaia egiteko egokiera. Baita haiengandik iritzi inter- resgarriak jasotzeko abagune- a, distantziak ematen dieten patxadaz hausnartutakoak. Interesik duenak ez du, ez, hemengo bizitza politikoaren informazio faltarik, gaurko komunikazioek eta Internetek horrelako bideak ematen baitizkiete.

Euskal etxeen ingurura hurbiltzen direnak behintzat, oso harro daude beraien jatorri euskaldunaz. Lekuko, haien espazioetan nagusi diren ikur- rarak eta gainontzeko euskal sin- boloak: ikurrina zuri-gorri-ber-

deak, lauburuak, Zazpiak Bat..., nonahi txintxilizka ikus daitezke. Abesten ere ez dira makalak. Gu lotsak jota uzte- ko mailaraino ezagutzen dute betiko euskal kantutegia. Eza- gutu eta kantatu. Zuberoa etor- tzen zitzaidan gogora afal oste- etan.

Gauza guztien gainetik, ordea, beraien euskal sustraien aldarrikapena. Obsesioraino askotan: "nire aitona halako herritik etorri omen zen...", "...nola jarriko nintzateke harremanetan horrelako abi- zena duen norbaitekin..."

Euskal nortasuna ezpainetan beti. Horren harira, argudio bitxiak entzutea tokatu zaigu, bat baino gehiago. Gogoan dut Baigorriko jatorria zuen giza- seme hari ondoko batek "vas- co-francés"esan zionean, las- ter asko erantzun zion beraien gaztelera gozoan: "Zuk eza- gutzen al duzu aleman-erru- siarren bat? Alemana zara edo errusiarra. Euskalduna edo frantsesa. Ez biak batera".

Edo "...baina zu, zertaz ari zara euskaldunak gora eta eus- kaldunak behera? Zu argenti- narra zara, eta kitto!", erdi oi- hu- katu zion espainiar bati Berro- biko jatorria zuen hark eran- tzun ziona: "Bai, argentinarra naiz, eta ohore handiz gaine- ra. Baina argentinarra azken 200 urtetan naiz. Euskalduna izaten, ordea, 7000 urte dara- matzat!".

Unibertsitatean badira oso lan interesgarria egiten ari dire- nak, Argentinako nagusiene- takoa den La Platakoan bere- ziki. Euskal jatorriko hainbat irakaslek talde bat osatu du eta serio eta tajuz dihardute, bai: gure herri zahar hau gaitzat har- tuta, hitzaldiak, mahai ingu- ruak, proiektzioak..., antola- tzen dituzte euskal etxeetan eta unibertsitatean bertan. Eus- kara eta euskal kultura ere ira- kasten dituzte.

Ez dugu merezi bezala zain- tzen gure diaspora. Goraintziak han utzitako lagunei eta bejon- deiela!



PEZEIZA

www.ezeiza-pertsianak.com

A s t e a s u
943 690 821

Pertsianak. motorizazioa eta ate metalikoak

Ez delako dezibelio kontua soil-soilik



Mikel Manzidor

Andoain



Altzoan, bere argitasun artifizialegi horrek begietan mina eman dit hasieran, ohitu arte"

Insomnio gauak omen dira inspirazio bila dabiltzarentzat idazteko momentu aproposenak, eta probatzea pentsatu dut. Probatzea ze, ehiztariak ere ez dira alferrik irtengo pieza bila oraindik ilun dagoenean, ezta arrantzale edo perretxikoza-leak ere. Bakoitza berearen xerka.

Eta ordenagailua altzoan, bere argitasun artifizialegi horrek begietan mina eman dit hasieran, ohitu arte. Eta plastikozkoa iruditu zait pantailan jarria dudana haurraren irribarrea ere, amerikanoegia, ingelesa ikasteko liburuetan agertzen direnen antzekoa. Berdin kaleko farolen itzal laranjak ilargiari ada-

rrak jartzen dizkion gauaren maitale izatez lotsaturik aurreko etxeen hormetan ezkutatatu nahian. Errudun. Ingu-ratzen nauen baretasuna ere arrotza egin zait, baita mesanotxeko iratzargailuaren orratzen mugimendu errepikakorrak *tik-etik tak*-era emandako deskantsua ere, inoiz baino luzeagoa, zerbait gertatzear balego bezala. Artifiziala egin zait guztia. Artifizialegia.

Eta *tik*...

Pentsatu dut hasieran begi aurrean nuen orri zuriak bezainbateko errespetua eman lezakeela mutututako momentu batek, momentu honen, hauskorra baita oso, eta interpretatzen zaila, eman-



kortasun mugatukoa. Eta isiltasunaz hausnarketa...

Isilik geratzen denak esateko ezer ez duelako egiten omen du hori batzuen ustez. Paradoxikoki behar baino gehiago hitz egiten da agian isiltasunaz. Behar baino gehiago, edo behar adina, agian. Gizakiak izan arren, animaliak ere bagarelako, instintiboak. Baina, zer dio isiltzen denak, isiltzen denean?

Isiltasuna entzun nahi izan

dut orduan, isiltasuna bilatu egunero telebistan kontatzen dizkiguten hitz horietan guztietan, belarrietatik sartzen dizkiguten ipuinen lerroen artean, inguratzen gaituen guztian. Eta guztia iruditu zait beti bezalakoa: artifizialegia.

...tak.

Laboaren esaldia Van Gogh-en ebakitako belarriaz entzutearekin amestu dut bart, insomnia isiltasunaz asper-tu denean.

Gabonetako Loteria jokatu gurekin!

SALGAI

Andoainen: Intza kafetegia, Iñaxi gozotegia, Urkiola taberna, Stop liburutenda, Eraitza liburutenda, Txitibar jatetxea eta Arruti gozotegia.

Urnietan: Urnieta frutategia, Goi-mendi taberna, Kantoi taberna, Zaldundegi jatetxea eta Jubilatuen etxea.



FEDEROPTICOS ORTE

Ikusmenerako terapia

Nagusia, 9. Tel./Faxa: 943 591 817
e-posta: orte@euskalnet.net Andoain



Lehorreko arraunlaria

Joseba eta Eneko Larrarte, Ander Ansa eta Garikoitz Lopetegi villabonatarrek San Pedroko traineruan denboraldi bikaina egin dute. Euren pasadizoen berri azaldu dute.

Duela bost bat urte hasi zineten arraunean. Bide hura hartu izanaz ez zarete damutu, itxuraz...

Ander: Denboraldia bukatu eta gero beti damutzen zara baino, gogoko dugu bestela.

Joseba: Arrauna kirol gogorra da eta gauza asko alde batera utzi behar bada ere, tira egingen du.

Eneko: Emaitzak dauden bitartean ondo egiten da aurrera.

A.: Aurten ondo ibili gara. Atzealdean ibili izan bagina, ezberdina izango zen.

Arraunean sekula ibili gabeak. Nola gogoratzen duzue hasiera hura?

J.: Gogorra, oso gogorra.

A.: Ideiarik ez eta demostratu egin nahi. Gogorra izan zen hasiera.

Garikoitz: Denek ere kirola nahiko utzita genuen arraunean hasi ginenean. Fisikoki ez geunden sasoiaren eta gogorra izan zen, bai.

J.: Duela bost urte hasi ginenean, Ander eta biok bigarren traineruan egin genuen urtea. Hurrengo urtean lehenengo traineruan ARC maila irabaztea lortu genuen eta ACTra pasa ginen. Geroztik ACTn lehiatu dugu, lehen mailan.

E.: Garikoitz eta biok urtebete geroago hasi ginen eta bigarren urtean igaro ginen ACT mailara.

A.: Poza eta motibazioa piztu zigun maila igoerak. ACTra igozteak onenen kontra lehiatzea esan nahi zuen. Orduan Orio besterik ez genuen buruan, baina talde guztiek asko hobetu dute azken urteetan. Gu ere hortxe gabilta, gerra ematen.

Iaz denboraldia txukuna egin zenuten, baina aurten oraindik eta hobea. Emaitzarekin gustura?

J.: San Pedrok azken 15 urteotan egin duen denboraldirik onena izan da aurtengoa: San Migel ligan bigarren, Kontxan hirugarren, Gipuzkoako txapelketan garaile... Guk ligan lehiatu badugu ere, liga horren barruan arraunetik bizi diren talde batzuk badaudela kontuan hartu behar da. Azken batean, beste maila bateko arraunlarien kontra ari gara. Gu ez gara arraunetik bizi: gure lanaz kanpo entrenatu behar izaten dugu. Egiten dugun sakrifizioa askoz ere handiagoa dela iruditzen zait.

A.: Futbolearen bezala, arraunean ere, diru gehien daukanak arraunlari onenak erosten ditu.

E.: Arraunean egiteko, Villabona, Usurbil, Donostia nahiz Pasaia inguruko arraunlariok osatutako taldea gara. Egin dugun denboraldiarekin gustura geratu gara. Orain gehiegi jabetzen ez bagara ere, urteak aurrera joaten diren heine-



Ander eta Eneko zutik, Joseba eta Garikoitz makurtuta.

an konturatuko gara seguru aski zer lortu dugun. Beti gehiago nahi izaten da, baina...

J.: Hankak lurrean eduki behar dira. Aurretik zein talde geratu den ikusita, oso denboraldi ona egin dugula jabetzen gara. Eta bereziki, gure mailako taldeak atzetik geratu direnean.

A.: Arraunean, ordea, beti aurretik doanari begiratzen zaio.

Kontxako banderan aspaldiko partez ohorezko txandan parte hartu duzue. Zer moduz estropada entzutetsua?

J.: Azken hamar urtetan, San Pedro ez zen ohorezko txandan sartu. Aurten sartu eta hirugarren egin genuen. Kaikuko-ek egin zutena, berriz, lotsagarrikeria iruditzen zait. Ez zait

normala iruditzen urte osoan talde batekin maila bat eman eta, Kontxan, hiruzpalau aldaketa eginda, minutu bateko aldea ateratzea.

A.: Duela bi urte Kaiku ez zen ezer eta bat-batean ailegatu, Kontxa irabazi eta hurrengo astean, berriz ere lehenbizikotik minutu eta gehiagora iritsi zen.

J.: Arraunlari onenak jarrita ere ezin da hori egin. Ligan nahiz Kontxan dopping kontroletatik oso atzera gaude, baina lepoa jarriko nuke egingo balira... Kontxan hirugarren lekuan geratu ginen, Kaikurekiko ia 30 segundora. Irabazlearekin alderatuta, hirugarren mailako taldea ematen genuen. Guk badakigu zein mailatan gauden eta zein maila eman daitekeen.



k, denboraldian bikain



Parranda ere kirola bezalakoa da, egiten ez bada, galdu egiten da sasoia”

LOPETEGI



Aurrerantzean San Pedrok erakutsi duen maila hobetzea oso zaila izango da”

J. LARRARTE



Sprint-ean hasi eta sprint-ean amaitzen den kirol gutxiene-takoa izango da”

E. LARRARTE



Jasotzen duguna baino gehiago ematen diogu arraunari”

ANSA

A.: Kaikuk egun horretan eman zuen maila estratosferikoa izan zen, existitzen ez den maila.

Ikusleentzat bezala, berezia al da zuentzat ere Kontxako bandera?

A.: Jende guztiak ezagutzen duelako da berezia. Entrenatzen hastean, “aurten Kontxa irabazi beharko duzue”, esaten digu jendeak. Taldeari izena ematen dio Kontxa irabazteak eta komunikabideetan ere hor azalduko da garailea. Kontxak liga tapatu egiten du.

J.: Jende askorentzat Kontxa da estropada garrantzitsuena baina, nire ustez urte osoko lana ligan neurtzen da. Kontxa bi eguneko estropada da eta zortez gain, denak ondo joan behar du irabazteko. Ligan, berriz, 18 estropada izaten dira. Urte osoko maila erakusteko egokiagoa da.

Aurtengo denboralditik gogoan gordeko duzuen estropada?

J.: Denboraldiaren hasieran Portugaleten irabazi genuen banderak ilusio berezia egin zigun, lehenengoa izateaz gain, egun horretan errekorra jarri genuelako. Gipuzkoako txapelketa irabazteak ere ilusio handia egin zigun. Azken batean, irabazten diren estropadak beti gordetzen dira gogoan.

Hogei minutu inguru irauten dute saioek. Denbora horretan, dena



El Corte Ingleseko bandera. Argazkilaria Iván Alonso (www.lamarinera.net).

eman behar izaten duzue...

A.: Sprint-ean hasi eta sprint-ean bukatu. Tope hasi eta erritmoa jarraitu behar. Gehien iraun edo ondoen egiten duena aurrera, besteak atzera. Bakar batek irabazten du.

E.: Batzuetan geratzeko gogoia ematen badu ere, segi egin behar. Estutu egin beharra dago. Sprint-ean hasi eta sprint-ean amaitzen den kirol gutxiene-takoa izango da. Hogei minutu horiek dosifikatzen ere jakin egin behar da. Hasieran eman arren, gero ezin baduzu, ez baitu ezertarako balio. Helburua, ahal den denbora guztian ahalik eta gehien ematea da.

Udan astebururo batera eta beste-ra. Denboraldia luzea egiten al da?

J.: Guk nahi baino motzagoa. Azaroan entrenatzen hasita, uztailen hasten gara lehia-

tzen, irailaren erdira arte. Aurre denboraldia oso luzea egiten da eta denboraldia motza.

Astean sei egunez, hilean hamar hilabetez entrenatzen duzue...

E.: Igandean ere normalean bai. G.: Hasieran, astean zehar fisikoa landu eta asteburuetan ateratzen gara uretara. Urta-rriletik aurrera, astean egun batzuetan uretan hasten gara eta behin martxo erditik aurrera, erabat uretan ibiltzen gara.

Udan bereziki, parranda faltan botatzen al duzue?

J.: Faltan botatzen da, bai. Herriko jaietan batez ere, baina onena ez ateratzea izaten da. Denboraldia amaitutakoan egiten ditugu gure parrandak. G.: Parrandak egitea ez da lehen bezala: hurrengo egunean damutu egiten zara. Lehen, parranda

handia egindakoan erreku-pertzea kosta egiten bazen, orain are eta gehiago! Parranda ere kirola bezalakoa da, egiten ez bada, galdu egiten da sasoia.

Herrian jarraitzaileak gehitu al zaizkizue?

E.: Jendea gerturatu eta galderak egiten ditu: intentzio onarekin batzuk, ez hain onarekin besteak. Denetik entzun behar izaten da.

J.: Jendeak galdera gehiago egiten duela nabari da eta esker-tu egiten da hori.

A.: Animatzaile onenak, dudarik gabe, etxeokak ditugu.

Aurrera begira gogotsu?

J.: Urtez urte exijentzia handia-goak dauzkagu eta urteren batean uzteko garaia iritsiko da. Aurten izan daiteke hori.

A.: Arraunlari batzuk horretarako bizi dira, baina gu, goizko sei etarako lanera joan, gero entrenamendura..., oso erritmo gogorra da. Jasotzen duguna baino gehiago ematen diogu arraunari.

G.: Orain berriz ere negua. Uda erraz pasatzen da baina bitartean, negua oso gogorra egiten da. Egunero, euria nahiz hotzarekin bueltaka ibili beharra.

E.: Gogorra da baina tira egiten du. Ontzia ondo doan heinean, sufritzen joan arren, gehiago eman nahian zoaz beti. Polita da hori.

Arrauna: kirol gogorra

Duela bost urte, Urki taldearen baitan hasi zen arraunean Josune Lizaso gazte andoaindarra.

Zaillasunak zailtasun, etorkizunean ere jarraitzeko asmoa duela erakutsi du.

Gurasoek bultzatuta eman zituen lehendabiziko arraunkadak hamairu urte zituela: “Aita usurbildarra da eta gaztetan arraunlaria izan zen. Lehengusu bat ere arraunean hasi zen eta neskak falta zirela esan zidan. Kostata, baina animatu egin nintzen. Ez nuen nire burua arraunean ikusten, baina lehendabiziko frogan egin ondoren, argi izan nuen jarraitu egin nahi nuela”, adierazi du Josune Lizasok.

Urte berezia izan da hau Josunerentzat: “Normalean arraunketa olinpikoan aritzen gara, baina aurtengo denboraldia luzatu eta tosta finkoan ere aritu gara. Denboraldi gogorra izan da, baina aldi berean polita, Kontxako estropadetan parte hartzeko aukera izan dugulako”, azaldu du. “Arraunketa olinpikotik tosta finkora pasatzeak prestakuntza pixka bat eskatzen du, teknika ezberdina delako. Tosta mugikorren gorputz osoa erabiltzen dugu eta finkoan, gerritik gora egin behar da lanik handiena. Hala ere, zailagoa litzateke finkotik mugikorrera pasatzea”.

EGUNERO, HUTSIK EGIN GABE

Asteazazpi egunetan entrenatuz pasa du aurtengo uda Josunek: “Neguan asteazpi bost egunetan egiten ditugu entrenamenduak, egunean bi orduz.

Eguna luzatzen hasten denean, ordea, uretara ateratzen hasten gara eta asteazazpi egunetan egiten ditugu saioak. Gainera, aurtengo uda berezia izan da Kontxako estropadan parte hartzeko erabakia hartu genuelako. Oporrak ahaztu eta uda osoan entrenamenduak egiten aritu gara”.

Zaila izan da Kontxarako taldea osatzea: “Abuztu hasieran lortu genuen trainerua osatzea, beraz, hilabete eskas izan genuen estropada prestatzeko. Ate asko jo behar izan genuen, trainerua ateratzea zaila izateko; aspaldian arraunketa utzitako neskak eta inoiz aritu gabeak ere animatu ziren. Esperientzia polita izan da guztientzat, eta oso giro onean aritu gara. Bagenekien kirol emaitza ikusgarriak ez genuela lortuko, baina merezi izan du trainerua ateratzea. Entrenamenduetan ari ginenean animo asko jaso dugu eta sailkapen estropadan ere jende asko izan zen begira. Estropada amaitutakoan portuan zegoen giroa izugarria izan zen. Horrenbeste jende ikusita lotsa pixka bat ere ematen zuen uretatik portura ateratzeak”.

Lotura handiko kirola da arraunketa: “Ikasketak eta kirola bateratzea ez da erraza, baina moldatu beharra dago. Urki taldean aritzen naizenez, Donostiara joaten naiz entrenatzera eta joan etorriek ere denbora eskatzen dute. Azterketa garaietan, entrenatzaile-



Kontxako estropadak bultzada handia eman dio nesken arraunketari, baina, bide handia dago egiteko”



Urte guztian prestatzen arituta, lehiarako aukera gehiago behar genuke, bestela, zaila da motibazioa bilatzea”

ak plangintza bidaltzen dit eta Andoainen bertan egiten dituten entrenamenduak”.

ARRAUNKETA OLINPIKOA

Arraunketa olinpikoan aritzen da Josune urtean zehar: “Bana-ka, binaka, seinaka edo zortzinakako ontzietan lehiatzen dugu. Iazko denboraldia nahiko ondo joan zen, baina arantza txiki bat geratu zitzaigun. Estatu mailako txapelketan seigarren postua lortu genuen binakako ontzian. Azken momentuko erabaki batek eragotzi zigun postu hobea lortzea eta aho zapore garraitzarekin geratu ginen. Gainerakoan, lehia eta txapelketa gehiagoren beharra azpimarratu nuke. Normalean, Frantziara, Soustonsera joaten gara lehiatzera. Orion eta Hondarribian egiten dira txapelketak, baina gainerantzean, kanpora ateratu beharra izaten dugu. Urte guztian entrenatzen arituta, lehiatzeko aukera gehiago behar genuke, bestela, zaila da motibazioa bilatzea. Jubenil mailatik senior mailara pasako naiz denboraldi honetan”.

EMAKUMEEN GORAKADA

Azken urtean, emakumeen arraunketak izan duen gorakadaz ere aritu da Josune: “Kontxa-

ko estropadak bultzada handia eman dio nesken arraunketari, baina hala ere, bide handia dago egiteko. Gainera, tosta finkoan lehiatzea oso jende gutxi ezagutzen du. Sari aldetik, jarraipen aldetik, oihartzun aldetik..., gauza asko dago oraindik egiteko”.

Arraunean jarraitzeko asmoa du Josunek: “Oso gustura nabil eta garbi daukat jarraitu egingo dudala. Ez dakit zein mailatan edo nola arituko naizen, baina badakit arraunean egiten jarraitu nahi dudala”.



a bezain erakargarria

Lehorrekoa izanik ere, aspaldidanik zuen Xabier Zabala gazte adunarrak arraunean froga egiteko gogo.



Zure buruari asko eskatzen diozu, baina gustura egiten duzu”

Lehendabiziko hiru saioretan bi bandera eskuratu genituen eta denboraldi borobila osatuko genuela zirudien. Tartean, ordea, zorte txarra eta lesioak ere izan genituen eta momentu txar batzuk pasa genituen. KE1 mailara igotzea zen helburua eta hasieran erraza izango zela bazirudien ere, zaildu egin zen. Bigarren postuan amaitu genuen liga eta *play off*-a jokatu beharra izan genuen. Bi egunetako lehiaren ondoren, KE1 ligarako txartela eskuratzeari lortu genuen. Momentu on horiek, denboraldian zehar pasatako txar guztiak estaltzen dituzte”, azaldu du Xabierrek.

EGOSKORREN KIROLA

Kirol gogorra da arraunketa: “Azaroan hasten ditugu entrenamenduak eta astean sei egunez joaten gara, denboraldia amaitu arte. Nire bizitza arraunaren inguruan jiraka dabil egun osoan. Neguko entrenamenduak gogorak dira; ilunpetan aritu beharra izaten dugu, euripean, hotzez, kazkabar edo haizearekin. Hala ere, ziur nago frogatzen duenak jarraitu egiten duela. Kirol honek harrapatu egiten zaitu. Zure buruari asko eskatzen diozu, baina ez duzu behartuta egiten, nahi duzulako baizik. Beti esaten dut arrauna egoskorren kirola dela”.

Arraunean jarraitzeko asmoa du Xabierrek: “Hasiberria naiz, eta jarraitzeko gogo handia



Xabier Zabalak urte hasieran eman zituen lehen arraunkadak Trintxerpen.

dut. Asko daukat oraindik ikasketek. Teknika hobetu beharra daukat eta hori, arituz ikasten da. Taldekideei eta entrenatzaileei eskerrak eman beharrean nago, batetik arraunean egiteko aukera eman didatelako, eta bestetik, erakusten eta laguntzen aritu direlako guztiak ere”. Datorren denboraldirako helburuak finkatzen ari dira taldekideak: “Kirol aldetik, KE1 ligan ahalik eta ondoren ibiltzea da helburua. Sailkapenaren erdi parean egon nahiko genuke, jaisteko beldurrik gabe. Hala ere, denboraldia hasi arte zaila da nola ibiliko garen jakitea. Jende mugimendu handiak izaten dira eta horrek asko baldintzatzen du. Bestalde, Trintxerpe taldearen kirol instalakuntzak nahiko egoera txarrean daude eta beste egoitzaren baten beharra dago”.

KONTXAKO ESTROPADA, ETORKIZUNERAKO

Kontxako estropadetako sailkapen frogan parte hartu zuen Xabierrek: “Ostegunez jokatu zen eta asteburu horretan play

off-etako estropadak genituen, beraz, gure helburua ez zen Kontxa. Hala ere, izugarri gozatu genuen hango giroarekin. Kontxako estropada berezia da. Etorkizunean, Trintxerprekin bertan izatea espero dut. Denbora behar da baina poliki-poliki, taldea sendotu eta maila ona lortuz gero, egin daiteke. San Pedrok egin duena adibide ona izan daiteke. Duela urte gutxi KE2 ligan zeuden eta orain oso maila onean ari dira, San Migel ligan. Ez dugu horrekin itsutu behar, bestela denboraldiak oso luzeak egingo zaizkigulako, baina aukera hori hor dagoela uste dut”.

Arrauna gaizki saldutako kirola dela uste du Xabierrek: “Kontxako estropadak oihartzun handia du, baina hortik kanpora, ez da jarraipen handiegirik egiten. Laguntza gehiago behar du eta zaletasuna sortzeko beste neurri batzuk ere hartu beharko lirateke. Esaterako, gaztetxoei erakusteko eskolak sortuz gero, lagunen eta senitartekoen jarraipena lortzen da. Gauza asko dago hobetzeko”.

MAILA IGOERA

Denboraldi ona osatu dute Trintxerpeko arraunlariek: “KE2 ligan hasi genuen denboraldia, futboleko bigarren maila B izango litzatekeena.

Batista Arruti: naturaren

Andoaingo goi parajeekin eta bertsoekin, gutxik jakin izan dute gozatzen Batistak lain.

Batistari, hala ere, orain aurreko belaunaldietako pertsona asko eta askori bezala gertatu zaio: bizi-baldintzek urrunago joan ahal izatea galarazi egin diote. Dohainak izanagatik, horiek alde batera utzi behar izan dituela alegia, eguneroko beharrari heltzeko. “Bizi nahiak, lege zorrotzak”, Batistaren lagun-min izan zen Agustín Zinkunegi idazleak esan zuen bezala bere liburuan.

Batista Arruti Iturrioz Goi-buru auzoko Talai baserrian jaio zen, 1925eko maiatzaren 3an; bigarrena, sei senideen artean. Oso gaztetan maitemindu ziren Txurikadi baserriko Mertxe Mujika eta biak, eta 1955ean ezkondu ziren. Talai ondoan dagoen Gure Legorpea etxean jarri ziren bizitzen; hiru seme eta bi alaba izan zituzten bertan.

Artaldea izan dute beti Usabelartza aldean, eta ia egunero egokitu zaio mendian gora mendian behera ibiltzea Batistari. Mendizaletasuna izan du beti gozamen, artzantzaren gainetik, “aisa ibili izan naiz. Harkaitz tartean, ote tartean..., astoa bezala! Artillezko galtzerdiak eta abarkak jantzi, makila bizkarrean hartu eta aurrera”.

Egun seinalatueta, bidela-gunekin nahiz bakarrik abiatu izan da ibilaldi luzeak egitera. “Aranora, Goizuetara, edo Berastegira joan izan naiz; haietan meza entzun eta oste-



Batista Arruti eta Mertxe Mujika emaztea, Gure Legorpea etxe aurrean.

ra etxera. San Lorentzo ermitara, esate baterako, berrogei urtean joana naiz, abuztuaren 10ean; ez dakit ba ote den inor hainbestetan joan denik”.

ZAZPI GURUTZEAK

Egundoko markak eginak dauzka, era ofizialean inon erregistratuta ez daudenak. “64 urte nituela behin, goizetik Erniora joan nintzen; handik itzuli, bazkaldu eta arratsaldean Aranorako joan-etorria egin nuen”.

Urtebete gazteago zela Agustín Zinkunegi adiskidearekin egindako markak, hala ere, ez du parekorik. “Zazpi gurutzeen itzulera” deitzen diomarkari Batistak. “Goizeko 05:00etan atera ginen Goiburu auzotik, papertegiko tutuarekin batera. Buruntzan ginen 06:00etarako. Handik Adarrara, Besabin barrena; hemendik Onddoko puntara. Onddotik Bertxinera jaitsi ginen; han gosaltzeko egonaldi txikia egin genuen, bez-

peran ardoa eta frutak saski batean gordeta bainituen trenbideko bazterrean. Handik hurrena, Belabieta eta Uzturreko gainera. Tolosara jaitsi gero, bazkaldu eta Erniora. Erriotik Belkoainera eta etxera. Gaueko 21:00etan ailegatu ginen etxera”.

Berea baino Zinkunegirena izan zela balentria azpimarratu du. “74 urte zituen ibilaldi hori egin genuenean. Izango da nirea berdin dezakeenik baina harena, nekez! Fenomenoa baitzen Agustín naturan natural ibiltzen ez ezik, natura interpretatzen, idazten...”.

Erraz ibiliko zen bere garaian Batista mendi gailur handiagotan. Gogo faltarik ez zuen izan, baina: “familia handia genuen etxean, papertegiko soldata ere eskasa izaten zen eta baserriko lanak ere egunerokoak ziren... Zeregin asko zen, inora joateko”.

Mendirako grina hori hala-beharrez transmititu izan die

“ Aisa ibili izan naiz. Harkaitz tartean, ote tartean... astoa bezala artillezko galtzerdiak eta abarkak jantzita”

seme-alabei: “urtetan San Lorentzora bi-hiru ume koskorak hartu eta joaten ginen andrea eta biok; bost urterekin joan izan dira oinez haraino. Arditara Usaberlartzara ere txikiena hartu eta joan izana naiz hamaika aldiz. Egunsetian abiatu eta eguardirako itzuli, papertegiko lan txandara garaiz iristeko moduan”.

BERTSOA, BIGARREN PASIOA

Berezkoa du bertsoetarako joera ere. Ez daki nondik irten zaion grina hori. “Gogoan dut 11 urte nituela nola jaitsi nintzen bakar-bakarrik herrira, herriko hamaika bertsolari bildu zituen txapelketa ikustera”. Andoaingen sekula izan den bertso saiorik ospetsuena izan zen 1936ko hura, eta Batista izango da huraxe konta dezakeen herritar bakana.

Bere kasa aritzen den horietakoa da Batista. “Ni ez naiz jendaurrean aritzekoa izan. Gustatu izan zait pixka bat pentsatu eta botatzea, eta hura aditzeko modukoa gertatzea. Etxean hasten naizenean nahiko poliki ateratzen zaizkit. Baina inoren aurrean, nerbioak irtezen zaizkit ikaragarri, eta gero gainera gau txarra pasatzen dut, inori faltatu ote diodan pentsatuz. Hobe dela ez kantatzea erabakitzen dut orduan”.

Jendaurrean apenas aritu dela berak adierazi arren, saio

n eta bertsoaren maitale



Etxean nahiko poliki aritzen naiz bertsoan, baina jendaurrean nerbioak ikaragarriak dauzkatzat...”

mordoska aipatu du memoria astindutakoan: “Lehenbiziko aldiz, 17 urte nituela izan zen, Goiburun bertan. Auzko zaharrek enteratu ziren nola aritzen nintzen, eta Joxe Zipitria “Itxaso” bertsolari on haren ondorian jarri ninduten tabernan. Dardarka jardun nintzen, baina bertso mordoa kantatu genuen elkarrekin, eta haiek ziren txaloak jaso genituenak!”.

Okasio aipagarrien artean, legez kanpo zegoen ikurrinaren aldeko egun hura aipatu du. “Urbiako zelaian erromeri jendetsua izan zen. Andoaindik autobusa bete joan ginen. Itzuleran, bertsoak bota behar omen nituela, gazteak animatu nin-



Batista (zutik) Romana Garin eta Agustin Zinkunegi senar-emazteekin, Urbian ikurrinaren aldeko egunean.

duzen. Orduantxe ikusi nuen nik lehenbiziko aldiz mikrofono bat. Atera zitzaidan lehen bertsoa, hara: Katxarro hau nere eskutan/ez da jarri egundaino./Dударik gabe adierazteko/izango da atzeraino./Nola egiten dezu enen/hemen/gaur hainbeste enpeño/bat edo beste kantako det/askorik ez dakit baino. Bertso hori bota ondoren, ikurrina gai zuten beste sai-

la heldu zen, eta txalo galantak entzun nituen”.

BERTSORAKO JOERA TRANSMITITZEN

Mendirako bezainbat itsatsi die seme-alabei bertsoetarako joera: “Gutxi edo gehiago, ia denek egiten dute. Eta orain, a zer ezustea biloba bat hasi zaigunean jendaurrean kantari eta bertso eskolan lagune-

kin-eta sartu behar duela esanez!”. Bapatean osatutako bertso gutxi dauzka idatziz Batistak. Gordetzen dituen bakanen artean, baditu bi Jon Beloki bilobari bota zizkionak, jaunartze ospakizun batean, gazteak tentatu zuenean. Batistaren bizi filosofia nahiko ondo islatzen dute bi bertsoek:

Lehendabiziko aldiya dezu Jon, kantatutzen nerekin. Ejenplo xea nahi dizut eman, gogoan izan honekin. Nahi dezunai bertsoa kantatu, nahi dezunekin bat egin, baina inori burlik egin’be kantatu zazu beinepein.

Aitona dago mutil jator bat zu izateko nahian. Oraitxe zaude zertxobait erakusteko garaian: umiltasuna izan zazu etxean eta herrian. Estimatu izango zera zabiltzan toki guztian.

BATXILERGOAK



LEIZARAN INSTITUTUA

Plazaola kalea, 23 - Andoain
943 300 078
www.leizaran.net
iesandoain@euskalnet.net

BATXILERGOAK ETA GOI MAILAKO GIZA INTEGRazio ZIKLOA

- Batxilergoak: zientifiko-teknikoa, humanistikoa
- Goi mailako Giza Integrazio Zikloa
- A eta D ereduak (euskara eta gaztelera)

Zuena, emakumeen topaleku

Zuena Elkartek urteak daramatza emakumeen garapenaren alde lan egiten.

Sebas Fernandezek gogotsu hartu du lehen-dakari kargu berria, gainerako zuzendaritza kideen antzera.

Konta dezakezu taldeak orain arte eraman duen ibilbidea?

Elkartea 2004ko uztailean jaio zen. Artean Kutxak Agustin Leitza kalean zeukan Familia Formazioko egoitza itxi egin zuen, eta orduan emakume asko umezurtz geratu zen, nolabait. Egoitzan bertan egiten zen dinamikari eusteko asmoa azaldu zuten, eta Zuena emakumeen topalekua sortzea erabaki zuten. Argi zeukaten zein behar zuen izan elkartearen sorrerako helburua: Andoingo emakumeek topaleku bat izatea eta pertsona bezala hezteko aukera ematea. Asmo horri eutsiko diogu zuzendaritza hartu dugun emakumeok.

Nolako asmoz hartu duzue zuzendaritza?

Izugarritzko ilusioz. Oso eskertuta gaude aurreko zuzendaritzarekin; berak lortu zuen aurrera eramatea elkartea, Udalarekin hitz egin eta hutsik zegoen egoitza lortzea eta berau



Zuzendaritza berriko zenbait partaide. Zutik, ezkerretik eskuinera: Maria Soledad Iruin, Luisa Leal, Angela Amores eta Maria Salud Tobajas. Eserita: Maria Angeles Villafañe, Maribel Perez, Sebas Fernandez, Mari Jose Zabala eta Noemi Vidal.

egokitzea, hainbat ekimen prestatuz bertan. Haien lekukoa hartzera gatozenak gauzak errazago dauzkagu, eta saiatuko gara haiek bezain txukun lan egiten.

Zenbatek osatzen duzue elkartea gaur egun?

90 bazkide gara denera. 40 euroko kuota ordaintzen dugu. Esan behar da urtean zehar antolatzen diren ikastaroak eta ekimenak ez direla soilik bazkideei begira egiten. Bazkidea ez dena ere etor daiteke, zertxobait gehiago ordaindu behar du, noski. Elkartek atea irekita dauzka, eta atseginez hartuko genituzke bazkide berriak nahiz ekintzetan parte hartzeko gogo hutsez datozenak;

Extremadura Kalean 2 bis kalean gaude, eta harrera eguna asteartean jarrita daukagu, 17:00etatik 19:00etara.

Zenbateko aurrekontua daukazu?

18.000 eurokoa. Bazkideek kubritzen dute gehiena; gainerako diru iturria Udaletik (2.000 euro) eta Gabonetako loteriatik datorkigu.

Zer nolako ekimenak antolatzen dituzue?

Ikastaroak dira gehienbat: marrazketa, musika, jostelanak, tai chi, yoga, pilates, areto dantzak, sebillanak, imitaziozko bitxiak eta automakilaia. Urtean zehar kultur bidaia ere antolatzen dira; lau irteera jarri

Ikastaroak antolatzen ditu elkartek: marrazketa, musika, jostelanak, tai chi, yoga, pilates..."

dira auten: Oñati, Errioxa, Madril eta Biana.

Zehaztu daiteke bazkidearen profila zein den?

Beren burua ekintza batean edo bestean hezitu, iaioitu... nahi dutenak dira. Badira 40 urtekoak, baina gehienak 50 edo 60 urteen inguruan dabilta. Etxeko lanetan aritzen dira asko, lantegietan bakar batzuk.

Emakumeak gara bazkide guztiak, baina badira bizpahiru gizon ekintzetan parte hartzen dutenak, sebillanetan hain zuzen ere. Ausartak dira horiek, baina gehiago etorriko balira elkartearen dinamikan sartzeko prest, ez genieke ezezkorik esango.

Agian herrian zenbaitek oraindik ez zaituzte ezagutuko...

Egia da ezezagunak izan gaitzkeela zenbaitentzat, ez baitugu ahalegin berezik egiten publizitatearen aldetik. Hala ere, irekita gaude herriko edozein elkarterekin elkarlanean jarduteko; esate baterako, Hogar Extremeño elkartearen batera ekimenen bat edo beste egin izan dugu.

Udazken neguko | kolekzio berria
ORMENDI & KIROLAK

Kale Berria, 2 - Tel./Faxa: 943 591 806 - 20140 Andoain (Gipuzkoa)

Garaje-plazak salgai

Estatuak emandako dirulaguntzak medio, Amasa-Villabonako Udalak Larrea auzoan garajeak egiteko proiektua jarri du abian.

Hasiera batean bi solairuko garajek egitea aurreikusi bazen ere, dirua denerako iristen ez zenez, lur azpian garajeak egin eta gainaldea txukuntzea erabaki da orain.

Berriki banatu diren fitxen bidez, herritarrei kontsulta egiteko asmoa du Udalak, lur azpiko garajeak direla eta, zein behar edo nahi dagoen ikusteko. Guztira 61 garaje izango dira: Horietako bat bikoitza, bi ezinduei zuzendutakoak eta gainerakoak, herritarrek erabakitzen dutenaren arabera, irekiak edo itxiak. Irekien artean handienak 10.000 euroko kostua izango du (prezioa jaitsi egingo da metroak gutxitzen diren heinean). Garaje itxiek, berriz, 15.000 euroko kostua izango lukete. Alkate-



Larrea auzoan aurrera doaz lur azpiko garajeak eraikitze lanak.

ak adierazi duenez, garaje itxiak eraikitze gutxieneko kopuru bat beharko litzateke, "oso jende gutxi eskatuko balitu, ezingo lirateke eraiki: ez baiditzateke errentagarria izango". Informazio zehatza eskaintzen duen diptikoa eta kontsulta orria banatu dira etxetan duela gutxi. "Kontsulta orria betetzeak ez du garajeetan izena eman denik esan nahi; norbanakoaren iritzia jaso nahi dugu, besterik ez". Herritarren iritzia

jasotzea oso garrantzitsua dela adierazi du Maixabelek eta udaletxean postontzia jarri dela txartel horiek jasotzeko.

MALKAR PLAZAN GARAJEAK ALOKATZEKO AUKERA

Larreako eskaintzarekin batera, Malkar plazaren azpialdean dauden garaje-plazak (marrak) alokatzeko eskaintza ere egingo du Udalak, erosteko aukerarekin. Aurrez sale-rosketara atera zirenean, lau



Malkar plazako garaje-marraren alokairuagatik 62 euro ordaindu beharko lirateke hilabetean"

pertsona soilik aurkeztu izan-nak bestelako eskaintza egitera bultzatu du Udalak. Alokairuagatik 62 euro ordaindu beharko lirateke hilabetean eta garaje irekia errentan hartzen duten guztiek, egokitu zaien garaje-plaza hori erosteko aukera izango lukete, kontratua sinatzen dutenetik hiru urteko epean. Garajearen guztizko prezioetik 50 euro deskontatuko lirateke errentan igarotako hilabete bakoitzeko. Garaje-plaza bakoitzaren batez besteko prezioa 21.000 eurokoa da (BEZ gabe). "Dirulaguntzarik gabe eraiki zirelako dira Larreakoak baino garestiagoak. Era berean, kontuan izan behar da herriaren erdigunean daudela ere", aipatu du alkateak. Eskaera egiteko aurkeztu beharreko agirien berri eta eskaera orria ere etxeetara banatuko dira.

Pantalla akustikoak N-1 errepidean

Gipuzkoako Foru Aldundiak, trafikoak eragindako zarata gutxitze aldera, 1,5 milioi euro baino gehixeago inbertituko ditu Villabonako N-1 errepidean pantaila akustikoak jartzeko. Lanak N-1 errepidean, 440, 850 eta 442, 250 k.p.-en artean burutuko ditu Construcciones Galdiano S.A. enpresak, lau hilabeteko epean. Guztira 1.400 metroan zehar jarriko dira aipatu pantailak.

Bestalde, proiektuak (GI3751) Amasa-Villabona errepidearen gai-

nean dagoen zubiaren behe-armadura sendotzea aurreikusten duela adierazi dute arduradunek, "karbono-zuntzeko xafak ezarri". Era berean, zubiaren bidezorian lanak aurreikusten direla ere gaineratu dute, aglomeratua eta dilatazio-junturak konponduz. Jarriko den pantaila akustikoaren diseinuarekin pantaila hori inguruko paisaia integraztea lortu nahi dute eta, horretarako, makina egokiak erabiliko dituzte, egungo landaredia babesteko.



N-1 errepidean, 1400 metroan zehar pantaila akustikoak jarriko dira.

Herri omenaldia, Remi A

Uztailaren 31n, tentsio egoera handiak bizitu eta gero bihotzekoak jota hil zen Remi Ayestaran zinegotzi eta alkate ordeari herri omenaldia eskainiko zaio urriaren 10ean.

Maixabel Arrieta, Josune Arretxe, Maialen Abaigar, Julito Iturbe eta Hautsi Izagirrerekin batera, 2007az geroztik, alkatetzako Udal taldea osatzen zuen Remi Ayestaranek. Udaleko kideek, Remi gogoan, hitza hartu dute.

Zer azpimarratuko zenukete Remiren pertsonaren inguruan? Remi pertsona borobila zen, oso irekia eta tolerantea. Denekin hitz egitea gustatzen zitzaion, denei entzutea. Bere ideiak garbi zituen eta berea defendatuko zuen, baina eztabaida bidez, denak adostasunera iristea nahi izaten zuen. Barrutik mila kezka izango zuen, baina kanpora lasaitasuna transmititzen saiatzen zen. Egoera gogorren aurrean askotan lasaitzen gintuen, “lasai pasako da. Aurrera egingo dugu”, esanez. Gero bera egon zitekeen agian okerreana. Asko botatzen dugu faltan.

Bi hilabete igaro dira Remiren heriotzaz geroztik. Zer moduz aurkitzen zarete udaletxe mailan? Gertatutakoa oso gertu sentitzen dugu oraindik. Remi gabe, lehenengo Udal bilera oso gogorra izan zen eta urriko lehenengo batzar orokorra ere oso gogorra izango da. Ea,



Udaleko kideak, batzar aretoan.

MAIXABEL ARRIETA ALKATEAREN HITZAK

Remiren heriotzaren ondorengo egunetan Maixabel Arrieta alkateak idatzitako hitzak dira ondorengoak:

“Zer esan dezaket Remiri buruz, hildako oro pertsona ona dela aipatu gabe. Villabonako Udalean elkarrekin lanean aritu garen urteetan, bizi-tzaz betetako gaztea, eskuzabala, solidarioa, familia maite zuena, lagunen laguna eta irekia zela kontura-

tu naiz. Etorkizunari begira baiko-rra zen, herri hobe eta justuagoa eraikitzeko bere indar guztia jartzen ahalegindu zen eta baita heriotza sorrarazi zien bi estatuen zapal-kuntzaren aurrean, Euskal Herri askea lortzeko ere”.

aurrekoan ez bezala, beste alderdietako kideak batzar horretara etortzen diren; zerrendan berriro jarriko dugu Remiren heriotzaren gaia aztergai. Gainerakoan, Hirigintzara izan ezik, beste batzordeetara gainerako alderdietako kideak etortzen ez direnez, halako tratu zuzenik ere ez dugu izan eta gure artean nabaritutako dugu Remiren hutsunea gehien. Ardura asko zuen Remik udaletxean eta gai zailenetan ere berak bultzatzen zuen taldea. Arlo askotan egiten zuen talde osoaren buru. Edozein zinegotzi

falta denean hutsunea nabaritzen bada, gai potoloetan horrelako pisua zuena galtzea izugarri nabaritu da eta nabaritutako da beti. Besteak beste, udaletxe barruko langileekin lan handia egin zuen, ordura arte idatzita ez zegoen arautegi edo protokoloa langileekin adostuta martxan jarri; arautegia ezarri aurretik ohituren arabera lan egiten bazen, udaletxeak ondo funtzionatzeko barrutik hasi behar zela erabaki baitzen. Lan handia egin zuen horretan Remik eta buruhauste handiak sortu zizkion. Arlo hori, esa-

“Omenaldian parte hartzeko deia egin nahi diegu herritarrei”

terako, nahiko zintzilik geratu da orain. Gauza bera Gaztelekuaren proiektuarekin ere: ilusio handiz eta buru-belarri ari zen lanean. Baita bestelako egitasmoetan ere: arau subsidarioak direla edo herriaren etorkizunari begira, beste edozein gaietan. Herritarren parte hartzearen aldekoa zen eta horren bila egiten zuen lan. Herritarren iritziak eta proposamenak jasotzea gustatzen zitzaion, aukerak ematea.

Berak utzitako hutsunea betetzeko zein pauso emango duzue aurrerantz?

Egia esan, hotzean pentsatu eta udaletxeko gaiari heltzea kosta egin zaigu. Abuztu bukaerari hasi ginen udaletxera etortzen eta gaiak nola bideratu pentsatzen. Irailaren hasierarako eman beharreko pausok finkatu genituen. Lehenengo eta behin, ordezkotziaz eskatu genuen eta zerrendan ordezkotziaz moduan zegoen Josetxo Lizartzak baiezkotzea eman zuen. Tramiteak egiten hasita gaude. Ikusi egin behar da orain erantzuna. Josetxo dagoeneko hasi da gurekin biltzen, gaiak nondik nora doazen jakiteko. Hasieran osatu genuen lan taldean ere parte hartu zuenez, gai asko ezagunak egiten zaizkio. Zinegotzi izateko aukera onartzen bazaio, Remik bideratzen zituen batzordeak hartu eta bileretara etortzeko erabat prest azal-

Yestarani

du da. Antzeko kasuren baten aurrean, Arabako herriren batean aukera ukatu egin dela bada-kigun arren, saiatu egingo gara. Badirudi, legez, hauteskunde-etan alderdi bakoitzak lortu duen zinegotzi kopurua man-tendu behar dela. Ikusiko da.

Urriaren 10eko herri omenaldian parte hartuko du Udalak ere...

Bai, herriko beste hainbat talde eta eragilerekin batera, Udalak ere hitza hartuko du omenaldian.

Herritarrei deiren bat?

Batetik, eskerrak eman nahi dizkiegu gertaeren aurrean era-kutsi zuten jarreragatik. Herria hunkituta sentitu genuen. Pentsaera ezberdineko jende asko gerturatu zen. Mila esker guz-tiei. Omenaldiari begira, berriz, Remik berak nahiko lukeen bezalaxe, parte hartzeko deia egin nahi diegu herritarrei. Herri guztia dago omenaldira gonbi-datuta. Gure azken agurra, par-te hartzearen bidez eman nahi diogu beste behin. Edozein eki-menaren aurrean plaza beteta ikusi nahi izaten zuen Remik. Horixe da gure gogoia ere.

Egitarau osoa
Agendan: 26. orria

'REMI GOGOAN' EKIMENA:

"Herriaren alde eginiko lanagatik, herritarrek eskainitako omenaldia merezi duela uste dugu"

Gertaera eta gero, Remiren lagunek 'Remi gogoan' ekimena abian jarri zuten. Ugaitz Larreta, Aitor Esnaola eta Aitor Gonzalezek azaldu dute ekimenaren berri.

Remiren heriotzaren inguruan herri mailan egin ziren deialdietan izan-dako erantzuna ikusitakoan jarri zuten martxan ekimena, "sortutako mina eta izandako erantzun zabal hura ikusita, (heldu nahiz gazte, kul-tur eragile, irakasle...), herri ome-naldia martxan jartzea erabaki genuen. Oso pertsona herrikoia zen Remi eta herriaren alde egindako lanagatik, herritarrek eskainitako omenaldia merezi duela uste dugu". Herriari Remi omentzeko aukera emateko asmoz kudeatu dute urria-ren 10ean Errebote plazan izango den omenaldia, "herriko eragile eta talde ezberdinekin bildu gara egi-taraua prestatzeko. Momentu tris-teak ere izango dira omenaldian zehar, baina oroitzapen gozoarekin geratzeko, herritarrek plazan elkar-tuta, amaieran pintxoak eskainiko dira elkarrekin eskutik". Unai Urre-aga, Euskadi Irratiko kazetari eta Remiren lagunak aurkeztuko du omenaldia; argazki eta bideo proiektioa ikusgai izango da, lagunek hitza hartuko dute eta zantzar, dan-tzari, bertsolari nahiz musikariekin



Ekimeneko hainbat kide, omenaldiko txartelak eskuan, gertaera lekuan.

batera, danborradak ere parte har-tu nahi izan duela jakinarazi dute taldekideek, "danborrada joz parte hartu nahi duenak taberna ezber-dinetan jarritako zerrendatan eman dezake izena", gaineratu dute. Herri-tarrei etxera iritsiko zaie gonbida-pena, "herritar guztiak daude ome-naldira gonbidatuta, Remiren izaera irekia kontuan hartuta, ez genu-ke herritar batzuentzat soilik izatea nahi". Omenaldi egunean Remi gogoan ekimenaren aurkezpena egingo dute eta aurrera begira ere euren lanari jarraipena eman nahi

diotela azaldu du hirukoak. "Eki-menaren helburu nagusia Remiren irudia eta pertsona goraiatu eta villa-bonatarren gogoan gordetzea da". Aurrera begira badute asmo gehia-go, "esaterako, uztailaren 31n bertan behera geratu ziren kontzertuak beste egun batean egiteko aukera aztertzen ari gara. Bestalde, 'Remi gogoan' ekimena bezala, festa batzordean parte hartuko dugu aurrerantzean. Uztailaren 31 ez dugu lutu egun bihurtu nahi, baina Remi oroitzeko ekintzaren bat tar-tekatu nahi dugu urtero".



kutxa
zer nahi duzu bihar?

Zizurkildarrak, herri kirol

Herri kirolen inguruko hainbat ekimenetan indartsu dabilta gazte zizurkildarrak.

Iraila hasieran Xiba txapelketako garaile izan ziren eta jaietako giza frogak antolatuta, lanerako gogoia badutela erakutsi zuten.

Irailaren 12an jokatu zen Xiba txapelketako finala eta garaipena lortuta, herri kirolletan trebezia badutela erakutsi zuten zizurkildarrek. Leire Zubeldia eta Aratz Alkorta, herri kirol taldeetako partaide izan dira azken ekitaldian. “Ezustean iritsi zen garaipena. Ekainean jokatu genuen Gipuzkoako kanporaketa, Idiazabalen. Ez genuen aparteko saiorik burutu, baina laugarren postuan geratu ginenez, finalerako txartela lortu genuen. Lezon jokatu genuen finala. Zazpi lurraldeetatik etorritako taldeek parte hartu genuen eta festa polita sortu zen. Izan ere, Xiba txapelketaren helburu nagusia elkar ezagutzea eta festa giroan aritzea da”, azaldu dute.

Kirol eta joko ezberdinetan duten abilezia erakutsi beharra izan zuten lehiakideek: “Musa, dantza, txingak, zakuak, lokotsak, trontza, soka-tira, xiba botatzea, lasto-altxatzea, harri-jasotzea, ingudea eta egur-pila izeneko frogak egin genituen. Goizean zehar egin genituen froga guztiak eta ondoren, talde guztiek elkarrekin bazkaltzeko aukera izan genuen. Oso giro polita sortzen da horrelakoetan eta Lezon ere halaxe gertatu zen”.



Andramari jaietako giza frogak ikusmin berezia sortu zuen zizurkildarren artean.

NESKA-MUTILAK, MAILA BEREAN

Sei neska eta sei mutil izan ziren talde bakoitzean: “Berdintasuna sustatu nahi du Xibak eta horretarako, neskak eta mutilak nahastuan aritzen dira froga guztietan. Egia esan, ez da erraza Zizurkil bezalako herri txikian hamabi pertsonen osatutako taldea antolatzea. Entrenamentuadarako tarte handirik gabe, azken astean lortu genuen hamabiko taldea osatzea”.

Zizurkildarrek ez zuten jakin Xiba txapelketako garaile zirenik azken momentura arte: “Froga bakoitzeko puntuazioa arbel handi batean jartzen joaten dira eta bazkaltzeko garaian egiten dira batuketak. Egia esan, ez genuen irabazterik espero. Taldekako lanetan ondo ibili ginen; soka-tiran, esaterako, garaipena lortu genuen, baina gainerako frogetan, bi eta hirugarren postuetan geratu ginen. Erregularitasunak eman zigun garaipena, Idiazabalen aurretik. Aipatzekoa da Idiazabalek sei aldiz parte hartu duela Xiban eta horietatik bostetan, bigarren postuan gera-

tu direla. Zizurkilek bigarren garaipena du aurtengoarekin”.

Garaipena nori eskainirik ere izan zuten gazteek. “Mikel Egibar izan da Zizurkilen herri kirolen sustatzaile nagusia eta bere ekimenez parte hartu genuen lehendabiziko Xiba txapelketan. Ziotza kirol elkarrekin egiten dituen ekitaldi ezberdinen bultzatzailea da Mikel eta guk, bide horri eutsi diogu”, azaldu du Aratzek.

GIZA FROGA BEREZIA, JAIETAN

Ziotza elkarrekin antolatutako ekitaldien artean, Andramari jaietako herri kirol saioa dago. Aurtun, giza froga berezia egin zuten eta ikusmin berezia sorra-razi zuten herrian. “Frogaren helburua saltsa pixka bat jartzea zen eta lortu genuela esango nuke. Iruña baserriko mandoa, neska koadrila eta mutil taldea lehiatu ziren harriarekin. Ikusmin handia sortu zen frogaren inguruan”, azaldu du Leirek. “Hasiera batean, lehia faltako zela iruditzen zitzaigun, mutil taldearen eta mandoaren



Ez da erraza Zizurkil bezalako herri txikian hamabi pertsonen osatutako taldea antolatzea”

artean alde handia izango zela-koan. Azkenean, ordea, mandoari kilo gutxiago jartzea erabaki zen eta lehia oso estua izan zen. Jendeak gustura ikusi zuen. Neskak berriz, ahal genuena egitera atera ginen eta uste baino hobeto atera zitzaigun. Hilabete inguru generaman frogarako entrenamenduak egiten, baina taldea guztiz osatu gabe. Frogaren bezpera arte ez genuen zortzikoa osatu. Talde osoarekin sekula entrenatu gabe atera ginen probalekura. Entrenamenduetan hamabi plaza inguru egiten genuen eta froga egunean, hamabost egitea lortu genuen, beraz, gustura geratu ginen. Esan beharra dago harriari tiraka ibiltzea ez dela dirudien bezain gogorra. Pixka bat prestatuz gero, ondo egin daiteke, nahiz eta gero, norberak erantsiko dion nahi duen gogortasun edo estutasun maila”, gaineratu du.

IKUSKIZUNA HELBURU

Mandoaren eta mutilen arteko lehia oso estua izan zen. “Helburua ikuskizuna jartzea zen eta hori lortuta, pozik geratu ginen. Mandoak hogeita bi plaza egin zituen eta gu marka hobetzera atera ginen. Bero zakarra egin zuen eta horrek gogortasuna eman zion frogari, baina mandoaren lana hobetuta, pozik geratu ginen”. Harri hotsak oraindik ere entzuten dira Zizurkilgo frogalekuan.

oletan bikain



Mutilen eta mandoaren arteko lehia estua izan zen.

“Apustu bat tarteko, entrena-
menduak egitera etortzen dira.
Tolosaldeko gazteak, Amasa eta
Zizurkil ingurukoak kontra
lehiatuko dira Aiako probale-
kuan”, azaldu du Aratzek.

Ziotza kirol elkartean zen-
bait kirol atal bateratzen dira:
“Pilota, herri kirolak eta gura-

so elkartetik bultzatutako hau-
rrentzako kirol ekintzak bide-
ratzen dira Ziotzatik. Lau edo
bost pertsona aritzen gara eki-
taldi ezberdinak antolatzen eta
horiek aurrera eramateko
garaian, beste hainbaten lagun-
tza izaten dugu”, amaitu du
Aratzek.

Ardo dastaketa Zizurkilgo Azokan




Urriko hirugarren igandean izango
da, urteroko moduan, Zizurkilgo
Azoka berezia. Berrikuntza nagusi
bezala, **ardo dastaketa komen-
tatu**a antolatu dute aurtengorako.
Egurdian, 12:15etatik aurrera eus-
karaz egingo dute eta 18:00etan
hasita berriz, gazteleraz.

Goizeko 11:00tan zabalduko da
Zizurkil Goiko azokagunea eta
19:30ak bitarte, egun osoko egita-
rau oparoa martxan izango da. **Kan-
tu jira, haur-jolasak, ardo dasta-
keta, txahal erre jatea** eta **La
Parrus Dixie Band** musika talde-
koen doinuak izango dira, besteak
beste, gozagarri.

Gainera, **Intxaur pilotaleku berri-
tua estreinatzeko** aukera emango
du Azoka bereziak. Lanak oraindik
gutziz amaituta izango ez badira ere,
artisauen postuak bertan jartzeko
moduan izatea espero dute. **Arti-
sautza, elikagai eta barazki pos-
tuen** artean, 65 postu inguru jarri-
ko dituzte aurtengo azokan.

Azoka berezira hurbildu nahi
dutenek, bestalde, **doako autobus
zerbitzua** izango dute eskura. Egun
guztian zehar, etenik gabeko joan-
etorrian ibiliko da autobusa. Bulan-
degi bideko errotondan, Zubiaurre-
txon eta Zizurkil goiko plazan egin-
go ditu geldialdiak.

Motorraren Gida

Faxa 943-300604 
mendi
AUTOESKOLA
Agustin Leiza 11 - 20140 Andoain

Karrozeria 
Elbarrena auzoa. 7. Industrialdea
943 693 046. Faxa: 943 694 310
8 eta 9 pabilioiak. 20150 Aduna

Tel.: 943 69 60 61
Faxa: 943 69 61 79
TRANS-ERNIO-GIPUZKOA
Urtaki industrialdea. 40. pabilioia
20150 ADUNA (Gipuzkoa)

 **Bengoetxea**
autoeskola
Andoain 943 594 406. Villabona 943 690 057

IBAI-ONDO
GARBIKETAK
943
692
256
Industrialdea, 16. 20.170 Irura

ARGI Bulandegi Bidea
15 Industrialdea
Karrozeria 
Zizurkil
943 692 513
Faxa: 943 693 569

 **ZABALAGA**
TAILERRA
automobilaren mekanika orokorra
Tel.: 943 300 169
Ama Kandida DENAC
industrialdea 203 Pabilioia
20140 ANDOAIN

AZKAIN Motoak [ANDOAIN]
Ubilluts. 56 Pol. 12. **943 591 413**

KARRIKA Auto konponketa
[ANDOAIN] Ubilluts. 56 Pol. 10. **943 300 214**

URPA Autobusak
[ANDOAIN] **666 489 010** (24 ordu) **943 305 050** (Garajea)

Giro ederra Asteasuko azokan

Eguraldi onak lagundurik, ehunka pertsona inguratu zen Asteasuko Azoka berezira.

Bertako esnea izan zen eguneko protagonista eta ohi bezala, esne-behien erakustaldiak jendearen arreta bereganatu zuen. Goizeko 10:00etan zabaldu zituen ateak Asteasuko Azoka bereziak. Herriko plaza, pilotalekua eta Ibargain baserriko belazeak laster bete ziren jendez. Asko eta asko izan ziren, gainera, bidegorrian barrena, oinez edo bizikletaz iritsi zirenak.

BERREHUN LITRO ESNE

Aurtengo azokako bereizgarri nagusia bertako esnea izan zen eta halaxe izango da aurreantzean ere. Pilotalekuan jarritako postu berezian, Gurea markako esnea banatu zuten jendearen artean eta Mahala edota Goenaga markako produktuak dastatzeko aukera ere izan zen. Bertako esnari bultzada ematea zen helburu nagusia eta jendeak gustura hartu zuen ekimena. Berrehun litro esne prestatu zituzten jende artean banatzeko, eta askok, aukera hori baliatu zuten egarria asetzeko. Haurren artean banatutako oparitxoek ere arrakasta handia izan zuten.



Esne behi ederrak izan ziren ikusgai ganadu erakusketan.

Behi esnari bultzada emateko ekimenarekin bat eginez, lehendabiziko arroz esne lehiaketa egin zen pilotalekuan. Guztira, hamasei arroz-esne aurkeztu zituzten lehiara. Litro bat esne erabiltzea zen jarritako baldintza bakarra eta anto-



Trikitalari gazteek kalejira egin zuten azokagunean barrena.

latzaileak, gustura agertu ziren izandako erantzunarekin. Epaimahaiko kideek buruhauste handiak izan zituzten garailea nor zen erabakitze garaian. Eguerdian, jendetza handia bildu zen epaimahaikideen inguruan, garailearen izena jakiteko gogoz. Arroz esnearen zaporea ezezik, aurkezpena ere kontuan hartu zuten eta azkenik, arroz esnerik hoberena Alaia Goñi gazteak egindakoa zela erabaki zuten. Gustura hartu zuen Alaiak Iñaki Amenabar alkateak emandako saria eta oroigarria.

BEHI ERAKUSTALDIA

Ganadu erakusketa Ibargaingo belazean egin zen berriro ere. Esne eta larre behi, ahuntz, ardi, abere..., bazen han zer ikusirik. Azken urteotan Lamiategiko belazeak erabili izan

“Alaia Goñi gazteak irabazi zuen lehendabiziko arroz esne lehiaketa”

dituzte ganadu erakusketarako, baina aurtengoa, aparkaleku berria egin dute gune horretan eta Iturriondo tabernaren atzealdera itzuli dute. Modu horretan, azoka-gunea bilduagoa geratu da. Jende ugari hurbildu zen herriko baserriarren ganadua ikustera eta eguerdiko erakustaldiak, ikusmin handia sortu zuen. Arroz-esne lehiaketa amaitu bezain laster Xabier Pellejero albaitariak hartu zuen hitza eta esne behirik hoberenen ezaugarriak azaldu zituen jendaurrean.

Ernioko azken erromeriarekin bat egin zuen aurtengoa Asteasuko azokak eta asko izan ziren menditik itzuleran Asteasun geldialdia egitea erabaki zutenak. Pilotaleku ondoan jarritako tabernatxoak eta herriko gainerako taberneak, indarrak biltzeko aukera paregabea eskaini zuten.

Arratsaldean, artzain txakurren lanaz gozatzeko aukera izan zen Lamiategiko belazean. Ikuskizuna amaituta, postuak bildu eta etxeratzeko garaia iritsi zen. Datorren urtean ere, iraileko azken igandek ekarriko du Asteasuko Azoka berezia.




JOXEAN HARATEGIA

baserriko haragia
urdaitegi berezia

Bulandegi bidea, 1.
Zizurkil
943 69 62 42

**PATXINE
JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA:
EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXETXEN POSTREAK
Errementari, 1 - Tel.: 943 69 10 25 - ASTEASU

Ur hoditeria konponduko dute laster

Gaur egungo ur sareak dituen galerei konponbidea emango zaie herriko hoditeria nagusia berrituz.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landa-gipuzkoa 32 egitasmoak eskaintako dirulaguntzari esker, herriko ur sarea konponduko dute epe laburrean. Xabier Mujika alkatetik azaldu ditu egin beharreko lanen nondik norakoak: "Mila biztanletik beherako herriei zuzenduriko dirulaguntza egitasmoa da Landagipuzkoa 32. Aurten, herri bideak eta ur sarea konpontzeko aukera eskaini zuten. Ur hoditeria berritzeko laguntza eman diote Larraulgo Udalari. Bideak konpontzeko laguntza ere eskatu genuen, baina ezezkoa eman ziguten".

2010ERAKO, AMAITUTA

Herri guztiko ur hoditeria konponduko da: "Datozen asteotan, ingeneri bat kontratatuko dugu, proiektua lan dezan. Hodiak nondik nora joango diren, zenbateko zabalerako hodiak beharko diren, urari zenbateko presioa emango zaion, arketak, kontadoreak..., non izango diren, etab. Proiektua amaitutakoan, lehiaketa publikora aterako da eta



Plaza inguruan izan ezik, herri osoko ur hoditeria aldatuko dute.

2010ean sare guztia berrituta izatea espero dugu".

Gaur egungo ur depositua mantendu egingo dute: "Ia 300.000 euroko aurrekontua dute ur sarea berritzeko lanek. Ur depositutik hasi eta herrigunera arteko hoditeria berrituz ekingo zaie lanei. Herrigunean hodi berriak dauzkagu dagoeneko, baina hortik beherako hoditeria ere berritu egin beharko da. Beste adar bat ere aterako zaio sare nagusiari, Antzola base-rritik Larrunbidera doana. Baserri inguruetan hidranteak jar daitezen saiaturako gara, urak beharrezko presioa izan dezan eta arazoren bat

sortzean erraz konpondu ahal izan dezagun".

UR GALERA LARRIAK

"Lan horiekin, herriak dituen ur galerak konpondu nahi genituzke. Gaur egun, depositutik ateratzen den uraren %50 baino gehiago bidean galtzen da. Uraren %20a galtzea normala litzateke, hodiak elkartzen diren puntuetan urak alde egiten duelako, baina Larraulgo hoditeria oso zaharra da eta arazo handiak dauzkagu. Uralitazko tuboak dira gehienak eta denborarekin hautsiz joaten dira. Ondorioz, maiz izaten ditugu galerak, txikiak batzuetan eta handiagoak beste

“ Lanak egiten hasitakoan sor daitezkeen eragozpenen berri zehatza emango zaie herritarrei ”

batzuetan", azpimarratu du Xabierrek. Lanak hasteko epea ez dago guztiz zehaztuta: "Ingeniariak proiektua garatzeko hilabete inguru beharko duela pentsatzen dugu. Lanak lehiaketara atera eta erabakia hartzen denerako ere denbora pasako da. Negu bizian lanak hastea ez da egokiena izango. Aurretik egiteko aukera balego, primerakoa litzateke eta bestela, udaberriko utzi beharko lirateke lanak".

Hoditeria berria sartzeko lanek irauten duten bitartean, etenaldiak egingo dituzte ur zerbitzuan: "Lanak egiten hasitakoan sor daitezkeen eragozpenen berri zehatza emango zaie herritarrei, momentuan momentukoa. Hala ere, ez dugu uste ur mozketak oso luzeak izango direnik. Hodi zaharrak ez dira kenduko, beste zulo batean jarriko dira hodi berriak eta prest dagoenean, bidearen azpialdean eta goialdean ur sarearekin elkartuko dira. Momentu horretan ur zerbitzua moztu beharko da. Garaia iristean, jakinaren gainean jarriko ditugu herriarrak".

FRANCISCO MENDIKUTE



HARATEGIA - URDAITEGIA

ESNE PRODUKTUAK
HAUTATUTAKO KONTSERBAK
ETA KALITATEZKO OKELA

Euskal Herriko produktuetan oinarritua:

Kaletxiki, 15 • ☎ 943 590 258 • ANDOAIN



**TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA

Ama Kandida, z/g - 307.

Moduloa • Tel.: 943 592 923

ANDOAIN

Maiz, korrikalari abila

1941 urtean jaio zen Aiako Manterola erdikoa baserrian. Azken urte luzeetan Asteasun bizi da. Korrikalari garaiaz eta afizio gehiagoz hitz egin du umoretsu.

Aian jaio, Zarautzen urte dezente bizitu eta azken urte luzeetan Asteasun bizi da, “Zarautzen hasi nintzen arozgintza ikasten eta urte asko egin nituen bertan. Zarautzen bizi nintzela joan nintzen soldadutza egitera Loiolara eta hantxe hasi nintzen korrika. Ezkondutakoan Zarautzen jarri ginen bizitzen hasieran. Emaztea Asteasuko Amasa Iturri baserrikoa da, eta bertara etorri ginen denborarekin”. Arotz moduan egin du lan urte luzeetan, “aroztegi txiki batean hasi nintzen aurrena, Muebles Alzan gero. Korrika nenbilela, Zarauzko ferreteria batean ere egin nuen lan, Zarauzko club-eko lehendakariarena zenez, aukera gehiago izaten bainuen kanpora korrika egitera joateko. Jubilatutik aurretik, eraikuntzan aritu nintzen lanean”. Arozgintzan ez ezik, baserrian ere lan asko egindakoa da, “13 urte nituela morroi joan nintzen Donostiako baserri batera. Egunez baratzean aritzen nintzen eta goizetan, barazkiak jaisten nituen zaldia eta karroa hartuta San Martin plazara. Hiruzpalau urte egin nituen han”. Oraindik ere jarraitzen du baserriko lanetan, “beti izaten da zeregina baserrian. Lau behi baditugun arren, ez zait ganadua gehiegi gustatzen. Baratzea eta etxe ataria txukun mantentzea nahiago izaten dut”.

UMETATIK KORRIKALARIA
Korrikarako afizioa txikitat



Joxe Migel Maiz, Zizurkilen.

datorrio Joxe Migeli, “eskolara joan eta orduko jolasak korrikaren ingurukoak izaten ziren. Beti korrika ibiltzen nintzen eta nire burua besteak baino azkarxeago ikusten nuen. Gustatu betidanik egin zitzaidan, baina orduan ez zegoen aukera handirik. Gure gurasoek jokoari beldurra zioten eta kirola txarra zela esaten ziguten, bizimodua ateratzeko lana egin beharra zegoela”. Soldadu joan zenean, goiz batean patioan formatuta zeudela, korrikarako afiziorik inork ba



Atletismoa munduko kirolik politena da niretzat

ote zuen galdetu zien kapitainak, “lagunek animatu ninduten eta dozenaren baten artean antolatu zuen karrera irabazi egin nuen. Handik hamabost egunera, bigarren karrera irabazi nuenean, komandanteak hartu eta militarren arteko Espainiako txapelketa bidali ninduen. Laugarren iritsi nintzen. Segidan militarren arteko mundialetara joan nintzen Luxemburgera eta hiru garren egin nuen”. Zazpi urtez internacional mailan ibilitakoa da eta emaitza onak lortutakoa gainera: Besteak beste, Espainiako txapelketa irabazi zuen urte batean eta beste lautan geratu zen bigarren. Lau urtetan izan zen Euskadiko txapeldun eta beste lau urtetan Gipuzkoakoa. Mundu mailako txapelketetan 6. eta 12. postuak lortu zituen Belgikan eta Tunezen.

LASARTE BIHOTZEAN

Gogoan gordetzen duen lasterketaz galdetuta, Donostia-

Lasarteko kross internazionala aipatu du. “1967 urtean bigarren geratu nintzen, pelotoian nindoala, beste korrikalari batek zapatilla atera baitzidan. Aurrea jarraitu nuen, oin batean zapatilla nuela eta bestean ez. Mamo Wolde Etiopiako korrikalariak irabazi zuen urte hartan. Hurrengo urtean nik lortu nuen garaipena”. Neguan udan baino gusturago ibiltzen zela aitortu du, “hobeto moldatzen bainintzen aldapan eta mendian, pistan baino”. Donostiako Gimnastica Ulian urtebete egin bazuen ere, Zarauzko club-eko partaide izan zen Joxe Migel. “Berandu hasi nintzen korrika, 21 urterekin, eta hamaika urtez ibili nintzen”. Utzi zuenetik, ez ditu lasterketak gehiegi jarraitzen, “ikusten baino egiten disfrutatzen da kirola. Mundu mailako atletismoko probak ikustea gustatzen zait, atletismoa munduko kirolik politena da niretzat. Gainerakoan, telebisitari ez diot kasurik egiten”.

MENDIA ETA TRIKITIA GUSTUKO

Mendira joatea oso gogoko du, Erniora batez ere. “Ahal dudala, jaiero joaten naiz. Txindoki ere gustatzen zait, baina bertatik bertara, mendi polita da Ernio”. Erromeriazale amorratua ere bada, “soinua aditzen amorratua naiz. Egun guztia egongo nintzateke esku soinu entzuten; soinu handia ere bai, baina trikitixa batik bat. Anaia ahoko soinua jotzen artista zen. Orduak pasatzen genituen hura entzuten. Kantua aditzea ere gauza ederra da. Koruan abestea izugarritzko plazera izango litzateke niretzat, baina ezta txarra daukat. Dantzan egitea ere bai, baina ez dakit sueltoan. Agarratuan hobeto moldatzen naiz”.



1968an, Lasarteko lasterketa internazionala irabazi zuen egunean.

HITZ gurutzatuak

ELOY ARTOLAZABAL

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker-eskuin:

1. Gaeuz zerbait zaintzen duena. Ald., singularreko bigarren pertsona.
2. Duela oso denbora gutxi ezkondu dena. **3.** Elizgizona ez dena. Egun. **4.** 500. Gordetegi, biltegi. **5.** Horrela deitzen diote etxean Isabeli. Lehen. **6.** Gu geuk. Galioaren Ikurra. Anperioa. **7.** Bilboko antzoki sonatua. Alderantziz eta errepikatuz, hegazti mota bat. **8.** Leku batetik bestera higi(tu). Erlijioan, hilkorra den osagaia. **9.** Landareekin erabiltzen den atzizkia. Eskuaren barneko aldea. Ald., izenondoekin erabiltzen den atzizkia. **10.** Larruazaleko ehunen irekidura edo hon-datzea. Eskimalen neguko edo ehiza garaiko etxea.

Goitik behera:

1. Geldirik egoten ez dena. **2.** Gizonaren eta abereen landare jangarria. Europako estatua, lehen Jugoslavia zena. **3.** Hunkigarri. Azken bokala. **4.** Zokondo, bazter. Oiloaren arra. **5.** Euriaz eta hotzez babes-teko jantzi mota. Bigarren pertsona. **6.** Ald., Bilboko zenbaki ezaguna. Mikelek liburua erosi... Egunaren zatia. **7.** Negar eragiten duena. **8.** Ald., Indiako iparraldean kokatu zen antzinako herri bateko kide. Iodoa. Gramoaren sinbolo nazioartekoa. **9.** Iruten duen pertsona. Apal. **10.** Hirunaka jarri edo banatu.

Erantzunak: 330

U	T	G	I	R	U	V	Z	10
L	I	R	U	H	V	I	L	9
V	M	I	R	V	T	I	B	8
K	U	V	G	V	I	R	V	7
V	V	G	K	O	R	E	G	6
N	E	R	R	U	V	V	S	5
U	T	I	V	D	R	O	G	4
R	U	V	G	O	K	I	V	3
I	R	R	E	B	N	O	K	2
H	I	N	I	V	Z	U	V	1
10	9	8	7	6	5	4	3	2

Merkatu txikia

- > Lasarteko erdialdean etxebizitza eta garaje bat alokatzen dira. Tel.: **686 674 552**.
- > Volkswagen Golf bat salgai: 104.000 km., SS-AL baina oso egoera onean. Aukera bikaina. 700 €. Tel.: **656 782 521**
- > Asteasuko Kale Nagusian etxebizitza salgai, hiru logela eta bi komun ditu, 80m². Prezio interesgarria. Tel.: **687 317 029**.
- > Ingelesko klase partikularrak emango lituzkeen norbaiten bila nabil. Tel.: **688 630 379** (Marijo).
- > Suzuki Vitara 1900 diesela salgai. 1999 urtekoa, 178.000 km. Defentsa eta llantak aluminiozkoak. Deskapoteblea. Aukera. Tel.: **616 333 017, 666 166 333**.
- > Pottoka arrazako abereak salgai. Eskura ohituak eta kalifikatuak. Tel.: **660 221 618**
- > Datorren ikasturtean alemaneko taldea osatzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuta egonez gero, dei ezazu Saimon akademiara: **943 594 053** edota **943 592 017**
- > CDR 600-R, 2005 urtekoa salgai. Kolore urdinekoa, extrak dauzka. 11.000 km. 6.000 euro. Tel.: **657 700 166**.
- > Gurdi-denda salgai. Sarrera estalia, denda, sukualdea eta armairu jantzitegia atxikita. Egoera onean. Tel.: **699 451 310**
- > Bateria Mapex Saturno bat salgai, platerak barne. **609 481 124**.
- > Etxebizitza alokatzen da Lasarten, Sasoeta auzoan. Hiru logela eta sala ditu, igogailua ere badu. Tel.: **620 105 694**.
- > "Portabicicletas" THULE BACKPAC 973 salgai. la berria, oso gubi erabilia. **629 424 140** (Salba).
- > 6-8 urte bitarterako bizikleta salgai, berri-berria. Tel.: **943 590 073** (galdetu Maiterengatik).
- > Abuztuaren 21ean Andoaingo etxe urdinetik kiroldegi alderako bidean, gurutzeta duen kate bat galdu nuen. Sarituko nuke. **943 300 568**
- > Ingelesko klaseak ematen dira. Bakarka edo taldeka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. **664 160 268**. (Iñaki).

andoain@aiurri.com MEZUA BIDALI

943 300 732 TELEFONUZ DEITU

DOHAINIK

Farmaziak

AIZTONGO

Ostirala, 2. **AZPIROZ**
 Larunbata, 3. **SANTAMARIA**
 Igandea, 4. **OLARREAGA J**
 Astelehena, 5. **ITURRIOZ**
 Asteartea, 6. **OLARREAGA M**
 Asteazkena, 7. **ETXEBESTE**
 Osteguna, 8. **MORANT**
 Ostirala, 9. **BRONTE**
 Larunbata, 10. **TOLOSA**
 Igandea, 11. **UGARTE**
 Astelehena, 12. **SANTAMARIA**
 Asteartea, 13. **OLARREAGA J**
 Asteazkena, 14. **ITURRIOZ**
 Osteguna, 15. **MORANT**
 Ostirala, 16. **OLARREAGA M**
 Larunbata, 17. **AZPIROZ**

ANDOAIN

Ostirala, 2. **ZATARAIN**
 Larunbata, 3. **DIAZ/ZATARAIN**
 Igandea, 4. **ZATARAIN**
 Astelehena, 5. **ANSA**
 Asteartea, 6. **ARZALLUS**
 Asteazkena, 7. **DIAZ**
 Osteguna, 8. **ELIZONDO**
 Ostirala, 9. **GOROSPE**
 Larunbata, 10. **ELIZONDO/DIAZ**
 Igandea, 11. **DIAZ**
 Astelehena, 12. **DIAZ**
 Asteartea, 13. **ANSA**
 Asteazkena, 14. **ARZALLUS**
 Osteguna, 15. **ZATARAIN**
 Ostirala, 16. **ELIZONDO**
 Larunbata, 17. **ZATARAIN/ARZALLUS**



Bertsoaren errusiar men

Iritsi da. Bertsozale asko eta asko zain zeuden unea heldu da. 44 bertsolari, hamarna epaile eta gai jartzaile, hamaika antolatzaile eta milaka entzule.

Guztiak igoko dira bertsoaren errusiar mendira. Jira eta bira, gora eta behera, Zestoatik BEC-era. Errusiar mendia. Iru-di hori hautatu du Bertsozale Elkarteak 2009ko Txapelketa Nagusia irudikatzeke. Saio batean senti daitezkeen emozioak adierazten dituen irudia. Ziur, aurtengoan ere sentituko direnak. Osagaiak behintzat ez dira falta.

44 BERTSOLARI

44 bertsolari sailkatu dira 2009ko Txapelketa Nagusirako. Beterri Aiztondo eskualdetik duela lau urteko ordezkari-



Bertsolariak, duela bi urte, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan.

tza bera izango da: Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu eta Amaia Agirre. Mendiluze azken txapelketan finalean izan zenez, finalerdietan sartuko da lehian, eta Agirre eta Irazu berriz, final laurdenetan hasiko dira. Biek gainera, saio berean abestuko dute, urriaren 11n Bilbon. Lau bertsokide hauek izango dituzte lagun: Julio Soto, Maddalen

Arzallus, Asier Otamendi eta Iñaki Zelaia. Guztira 36 bertsolari izango dira final laurdenetan, zazpi saiotan banatuta. Lehen saioa Zestoan izango da hilaren hiruan eta azkena Laudion 24an. Finalerdietara 17 onenak igaroko dira.

FINALERDIETAN ALDAKETA

Finalerdietan, sailkatutako 17ri



Beterri Aiztondotik duela lau urteko ordezkaritza bera izango da: Mendiluze, Irazu eta Agirre"

iazko zazpi finalistak gehituko zaizkie. Aurtengoan ordea, aldaketa txiki bat egin dute. Bi saiotan kantatuko du bertsolari bakoitzak, puntu gutxien jasotzen dituzten sei bertsolariek izan ezik. Horrela, lehen itzulian lau saio izango dira eta bigarren itzulian hiru. Finalerako zazpi onenak sailkatuko dira, eta BECen, txapelduna, Andoni Egaña izango dute zain. Informazio gehiago, eta sarrerak edo txapelketa osorako bonoak eskuratzeko aukera www.txapelketanagusia.eu atarian aurki daiteke. Aiurrin ere, aldizkari oro emango da txapelketaren inguruko informazio zabala.

JEXUX MARI IRAZU, hilaren 11n kantatuko du Bilboko Arriaga antzokian: "Gogoz iritsi naiz txapelketara"

Txapelketako beteranoetako bat izan arren, ilusioz heldu dio aurtengo txapelketari ere.

Nola iritsi da Jexux Mari Irazu 2009ko Txapelketa Nagusira?

Egia esan, plazan gustura nabilela eta gogoz iritsi naiz txapelketara. Hala ere, jakinekoea da herritz herriko jarduna eta txapelketa lan bana direla, eta moldaketa hori ez da hain erreza.

Txapelketak zuretzat duen esanahia aldatu al da urteotan?

Urteak denontzat pasatzen dira eta txapelketako gaztetxo izatetik beterano iza-

tera pasa da gure belaunaldia (txapelketako hirugarren-laugarren zaharrena naiz). Beharbada, urteekin txapelketa gehiago erlatibizatzen da, baina, errealistak izanda txapelketari duen garrantzia aitortu ere egin behar zaio. Bai gaur eta bai lehen, bertsolaritzaren % 70-80 txapelketen pausoen mugitzen da. Ez dakit hala behar lukeen, baina hala, edo hala egin dugu.

Zein da aurtengoan zure buruari jarritako erronka?

Beno, aurrekoa baino txapelketa luze-xeagoa egitea nahiko nuke, lehena-gor hasi eta beranduago bukatu.

Bilbon kantatuko duzu, hasiera batean, final laurdenetako saiorik indartsuenetakoa da zuena...

Talde polita da bai, gustatzen zait. Saio ona egiteko koadrila dela uste dut, eta puntuak biltzeko ere orokorrean saio ona izatea komeni da.

Final erdietara ez sartzea, porrota al litzateke?

Beno, mundua ez da bukatuko baina, egia esanda final erdietara ez sartzea pena handia litzateke, bai. Euskal Herriko eta Gipuzkoako Txapelketak kontatuta, zortzitan hartu dut parte eta zazpitan finalean izan naiz.

Eta denok nahi izaten dugu egiten dugun pixka aurrera egitea.

Jende kopuruan eta bertso mailan, duela lau urteko txapelketa, ahaztezina izan zen. Oraingoan zer espero duzu?

Udarako saiotan plazatan jende asko ibili da, eta normalena da orain dela lau urtekoa berdindu behintzat egitea, krisiak krisi. Bertso maila aldetik, txapelketa luzea da eta pilotan ere denak ez dira gantxoak izaten. Eta aurtun ere finalean bertso on asko entzungo dela ez daukat dudarik.

ndia abiatzear

AMAIA AGIRRE, hilaren 11n kantatuko du Bilboko Arriaga antzokian:
“Inoiz baino erosoago nabil bertsoan”

Villabonatarra txapelketako gazte beteranoetako bat dugu.

2009koa, hirugarren txapelketa nagusia izango da berarentzat. Duela lau urte lan bikaina egin eta finalaren atarian geratu zen. Aurten ere finalerdiak ditu begiz jota eta gozatzea helburu. Ohi bezala, zintzo erantzun die Aiurriko galderei.

Zein da zure buruari 2009ko txapelketarako jarritako erronka?

Finalerdietara iritsi nahi nuke. Saillapen kopuruei begira badi-rudi ez dela zaila, baina ez da hala. Esperientzia handiko jendea ez ezik jende gaztea indartsu dator, sorpresa emateko desiratzen. Galtzeko ezer ez daukaten horiei beldur diet, baina beldurrik eta konfiantzarik handiena ere nire buruarengan daukat. Zer erremedio, ezta?

Jada ibilbide bat egin duzu txapelketan bezala, plazetan. Bertso mailan, heldutasunera iritsi zarela esango al zenuke?

Inoiz baino erosoago nabil bertsoan, baina nire bertso mailaren gorenera ezin iritsi nabilela sumatzen dut askotan. Norbera ez da garapenaz eta hobekuntzaz hainbeste jabetzen, baina nire lekua aurkitzen ari naizela sinistu nahi dut.

Duela lau urte ez nituen garai onak bizi, eta uda gogorra egin zitzaidan. Aurten lasaiago hartu dut, nahiz eta txapelketa hurbiltzen doan heinean larritzen hasi.

Bilbon kantatuko duzu, hasiera batean saiorik indartsuenetakoa da zuena...

Arriaga antzokia leku zoragarria da, dotorea. Talde indartsua da gurea. Urte asko daramatzenak, mailarik gorenean dagoena, bi gazte indartsu... Ez da erraza izango, baina lehen postuetan sartzeko ahalgina egitera noa.

Final erdietara ez sartzeari, porrota al litzateke?

Porrota? Ez dakit. Nahigabe eta pena handia bai. Bi finalerdietan kantatu nahiko nuke. Eta hor ere ahal dela aho zapo-re onarekin geratu.



Hezkuntza arautuan bertsolaritza irakasten diharduzu, bertsoaz aspertzeko beldurrik ez?

Bai, baina gozatu ere horrekin egiten dut. Nire bizitza bertso-rik gabe irudikatzea ezinezkoa da une hauetan. Ofizio eta afizio ditut. Afizioa ogibide banu askoz gusturago, baina ez dit hainbesterako ematen, beraz, ahal dudun bitartean bietan jarraitu nahi nuke. Haurrekin asko nekatzen zara, baina oso esker onekoak ere badira.

Jende kopuruan eta bertso mailan, duela lau urteko txapelketa, ahaztezina izan zen. Oraingoan zer espero duzu?

Aurten beste hainbeste. Plazetan eta komunikabideetan txapelketaren presentzia nabarmena da, eta espektatiba denak betetzeko osagai guztiak ditu. Txapeldun berria izateko ere arrisku ederra aurten! Berdinak gailurrean jarraitzeko ere bai! Auskalo! BECen ez ezik, lehenengo kanporaketatik antzemango da lehia eta egin nahi hori, eta entzuleak gozatzeko parada izango du dudarik gabe. Niri dagokidanez, Bilbon gozatu egin nahi dut, eta aurrera egin. Konfiantzarekin joatea baino ez dut eskatzen, eta hori nire esku dago. Nire esku dagoena ondo egitea da nire erronka.

**DESKANTSURAKO ZAPATAK, KOSMETIKA
 NATURALA, ILEAREN AZTERKETA ETA
 TRATAMENDUA**

XIXORI

BELARDENDA
Dietetika zentrua
Kontsulta naturista



Ondarreta, 9 • 943 590 199 • ANDOAIN
 Txitibar, 4 • 943 245 023 • ANDOAIN

URRIAREN 2tik aurrera

Odol emaileak

Andoain

- > Urriak 13, asteartea
19:00-21:00, Anbulatorioa.

Mendizaletasuna

Andoain (Euskalduna)

- > Loiola-Xabier 7. etapa. Tajonar-Unciti-Artaiz-Zuazu.
Urriak 4, igandea.
- > Cuencako mendilerroa-Albarracino mendilerroa.
Urriak 10-11-12.

Amasa-Villabona (Aizkardi)

- > Bizikletaz Bardeetara.
Urriak 10-11.
- > Aralar (goizekoa).
Urriak 11, igandea.

Hitzaldia

Andoain

- > Maiana Agorrody aka Lady My
Urriak 8, osteguna
19:30, Bastero.

Irteera

Andoain

- > Iparraldera txangoa;
Hendaia eta Sara
Urriak 10, larunbata.

Ospakizuna

Andoain

- Andoaingo Txirrindulari eskolak** 25 urte bete dituela eta, ospakizun bereziak egingo dituzte.
- > Urriak 2, ostirala
Mahai-ingurua: Arritxu Iribar, Abraham Olano, Mikel Astarloza eta Haimar Zubeldia.
19:30, Bastero.
- > Urriak 3, larunbata
Kriteriuma: jubenil, afizionatu eta profesional mailako txirrindulariak. Puntuazio eta eliminazio frogak egingo dira.
17:00, Kaleberria.
Lagun arteko afaria. Txirrindulari

REMI AYESTARANI HERRI OMENALDIA

Amasa-Villabona

URRIAK 10, LARUNBATA

Errebote plazan, 19:00etan

- > Donostiako Alde Zaharreko Zantantzarrak.
- > Herriko elkarte eta koadrila ezberdinen elkartasun adierazpena, kamisetak edo nahi dena zintzilikatuz.
- > Bertsolariak.
- > Remiren txikitako argazkien emanaldia.
- > Agurra, herriko dantzarien eskutik.
- > Kantua, musika eskolako hainbat irakasleren eskutik.
- > Arkitektura ikasten Burgosen aritu zenean ezagututako lagunaren parte hartzea.
- > Herriko dantzariak.
- > Udaletxean egindako lanen inguruan, argazki eta bideo emanaldia.
- > Udal zinegotzi eta ezker abertzaleko kideen parte hartzea.
- > Lain musika taldea.
- > Kantua, Gazte Asanbladako kideen eskutik.
- > Lagun eta koadrilako parte hartzea.
- > Lagunarteko momentuak bilduz, argazki proiektzioa.
- > Herriko danborradak Villabonako marxa joko du.
- > Ondoren, herriko elkartearen eskutik, pintxoak eta edaria eskainiko dira.

Aurkezlea: Unai Urreaga, Euskadi Irratiko esataria.

eskolarekin harremana izan duten guztien arteko afaria.
20:30, Oianume jatetxea.
Info gehiago:
www.andoaingo.com

Lehiaketak

Andoain

- > **Martin Ugalde XIII. ipuin lehiaketa.** Andoain, Aduna, Asteasu, Amasa-Villabona, Larraul eta Zizurkilgo gaztetxoei zuzenduriko lehiaketa.
Lanak aurkezteko egunak:
Urriak 9 eta 13, 09:00-13:00, Bastero Kulturgunea.

Zizurkil

- > **VIII. Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketa.**
Sei urtetik aurrerako idazleei zuzenduriko lehiaketa.
Lanak aurkezteko epea:
Azaroak 20.
Info gehiago: 943 692 495.

Txapelketak

Amasa-Villabona

- > Txermin-Biltoki jubilatutako elkarrekin mus, tute, eskoba, txinton eta seiko urrea karta txapelketa antolatuta du Biltokiko aretoan.
Urriak 2, ostirala. 19:00.

Musika

Andoain

- > Otxalde folk taldea
Urriak 3, larunbata
20:00, Bastero.

Zizurkil

- > Iker Goenagaren "...arteraino" disko berriaren aurkezpena.
Atxulondon.
Urriak 3, larunbata. 20:00. 8€.

Amasa-Villabona

- > **Herria Kantuz** Berdura plazatik.
Urriak 17, larunbata. 12:00.
- > **Kontzertu liriko:** Ana

Iparragirre pianoan eta Haizea Muñoz sopranoa. Urriak 17, larunbata. Gurea antzokian. 20:00. Doan.

Bidezko merkataritza

Amasa-Villabona

- > Bidezko merkataritzako produktuak salgai, Bateginik taldearen eskutik. Hileko lehen igandeetan Gurea zinemaren atarian.

Zinema

Amasa-Villabona

HELDUENTZAT

> Malditos bastardos

Urriak 10, larunbata 22:30 (4,5€)
Urriak 11, igandea 19:30 / 22:30 (4,5€)
Urriak 12, astelehena 21:30 (3€)

> Millenium "El hombre que no amaba a las mujeres"

Urriak 17, larunbata 22:30 (4,5€)

Urriak 18, igandea 19:30 (4,5€)

Urriak 19, astelehena 21:30 (3€)

HAURRENTZAT

> Pequeños invasores

Urriak 11, igandea 17:00 (3€)
Urriak 12, astelehena 17:00 (3€)

> Ice age 3 "La edad del hielo"

Urriak 18, igandea 17:00 (3€)

Azoka berezia

Zizurkil

- > Herriko nekazarien produktuak eskainiz XII. Azoka berezia Zizurkil Goian. Urriak 18, igandea. Kantu Jira, haur jolasak, ardo dastaketa, herri bazkaria, Parrus Dixie Band-en emanaldia...

Hurrengo Aiurri

URRIAK 16

www.aiurri.com

Urria

Andoain **bastero**
KULTURGUNA

Teatro Paraisok aurkeztua



Haur antzerkia

Kri kra kro

URRIAK 11,
igandea,
12:00



Sarreraren salmenta:



SERVIKUTXA KUTXAZAINAK
943 00 12 00
www.kutxa.net



ANDOAINGO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Antzerkia gazteleraz

Ron Lalá
taldearen
eskutik



Mundo y final

URRIAK 17, larunbata,
21:30

Grizzly 700



Azkain motoak

Yamaha
Tmax
ABS



KTM 125 EXC

- Motorrerako behar duzun guztia
- Motore azterketak
- Mota guztietako Scooterrak

- Salmenta eta konponketak
 - Quad ATV modelo guztiak
- PREZIO INTERESGARRIAK**

Ubilluts auzoa, Pol. 56-Nº12 • 20140 Andoain
Tel.: 943 591 413 / Faxa: 943 590 456

www.azkainmoto.com / azkain@azkainmoto.com

G A N B A R A

T A B E R N A

ZATOZ,
bertan aurkituko duzu girorik jatorrena.
Musika berria entzuteko aukera
paregabea duzu!

Arteta Kalea 5-7 behe. ☎ 943 591 971 ANDOAIN



azoka berezia

zizurkil

Urriak 18

igandea

11:00-14:30 / 16:30-19:30

**Baserriko
produktuak eta
artisansak.**

Autobusa doan Bulandegi Bideko errotondan
edo Zubiaurretatik Zizurkil Goiko Plazara
egun guztian zehar.

11:00 Kantu jira. *Azoka euskal kantuz
alaituko dute.*

12:00 Haurrentzat jolasak udaletxe
aurrealdean.

12:15 Ardo dastapen komentatua
euskaraz.

13:00 "Zizurkilgo Azoka Bereziko
Saria" *Zizurkilgo janari postu hoberenari.*

14:30 Txahal erre jatea Zimiterioan.
*Txartelak salgai Zentroa, Pantxikane eta
Atxulondo tabernetan. Prezioa: 15 euro.*

17:00 Haurrentzat poniak eta
jolasak.

18:00 Ardo dastapen komentatua
gazteleraz.

Arratsaldean zehar:
La Parrus Dixie Banda.

Zizurkil goia

2009

LAGUNTZAILEAK:

Zizurkilgo
festa batzordea



kutxa

ZIZURKILGO UDALA

